

# BALEIKE

KLIMA ALDAKETA

**ETA GAINEZKA  
EGITEN BADU?**



21

hilabete  
interesik  
gabe

TOP21



6KG

A+++ Efizientzi energetikoa

1200 bira/min

295€

BALEIKE  
%5  
BAZKIDEA

7KG

1000 bira/min

319€

Led Display-a

Gelditu+kargatu

Bukaera atzeratua

BALAY  
3TS776BE



A+++ Efizientzi energetikoa

Bero bonba

8kg

459€

Led Display-a

Bukaera atzeratua

Hezetasun sensoreak

40 min abiadurako programa

BALEIKE  
%5  
BAZKIDEA

BALAY  
3SB285B



# BALEIKE 291

2019-URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
GORKA ZABALETA

## Aurkibidea

- 4 **Hitz tantak** Izaskun Urbietta Esnal  
*Uxue Alberdi*
- 6 **Izpiak eta hizkiak** Peio Romatet  
*519 segundo*
- 8 **Hainbat aburu** Antton Peñalba  
*Ongi etorri, Larraina!*
- 9 **Errematea** Sara Iburguren  
*Ezagutza*
- 11 **Erreportajea** Izaskun Urbietta Esnal  
*Uretako izaki bizidunak ulertuz*
- 16 **Elkarrizketa** Maria Maya  
Manterola  
*Maddi Gallastegi: Emakumeen askapena jendarte osoa askatzeko bidea da*
- 20 **Erretratua** Julen Aperribai  
*Jose Antonio Peña, motor matxuratuen artetik*
- 24 **Bazkide kluba**
- 26 **Plazan bazan**
- 29 **Osasuna** Rosa Azkue
- Disfagia*
- 31 **Heziketa** Izar Arregi  
*Familian ondo pasatzeko tartea*
- 32 **Zientzia eta ingurumena** Gorka Zabaleta  
*Elisa Sainz de Murieta: Itsasoaren mailaren igoera aintzat hartu behar da kostako herrien hirigintzan*
- 37 **Orduan bai** Imanol Azkue  
*Ura da, gu gara*
- 42 **Kultura** Juan Luis Romatet  
*Artea ardo artean*
- 43 **Agenda**
- 44 **Literatura** Asier Arakistain  
*Gatazkaren plano intimotik*
- 45 **Nire txanda** Nerea Eizagirre  
Telleria  
*Porru patatak tabaskoarekin*
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet  
*Arkadiara bidala*

BALEIKE

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu z/g. 20730  
AZPEITIA  
943-86 15 45  
aldizkaria@baleike.eus  
www.baleike.eus

### Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia  
**Zuzendaria**  
Juan Luis Romatet  
kattan@baleike.eus  
**Erredaktore taldea**  
Izaskun Urbietta  
Maria Maya Manterola

### Diseinu arduraduna

Ane Azkue  
**Hizkuntza arduraduna**  
Imanol Azkue Ibarbia

### Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua  
publizitatea@baleike.eus  
**Administrazio arduraduna**  
administrazioa@baleike.eus

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-405/94  
**ISSN:** 1136-8594  
**Tirada:** 800 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k  
kutxabank

# Uxue Alberdi

---

**TESTUA:** IZASKUN URBIETA ESNAL

**ARGAZKIA:** JONATHAN MCCALLUM

---

Uxue Alberdi idazlea 2011z geroztik dabil irakurle taldeetako dinamizatzaile lanetan. Hasieran Getarian, gerora etorri zitzaion Zumaiakoa gidatzeko aukera. Egun, bi herri horiez gain, Lasarte-Orian ere badabil.

## **Zerk bultzatu zintuen irakurle talde bat sortzea?**

Ezagutzen nuen irakurle taldeen lana, idazle gisa. Literaturaz hitz egiteko, irakurzaleak elkartzeko, idazleak eta haien lana ezagutzeko espazio ederrak dira, eta pentsatzen nuen gustura ariko nintzela dinamizatzaile lanetan. Ez nintzen ekibokatu.

## **Zortzi urte igaro dira sorrerako taldeetatik. Nola eboluzionatu dute, orokorrean, eta Zumaiakoak, bereziki?**

Hasierako izen-ematea beti izaten da puztu samarra. Ondoren, taldea egonkortu egiten da eta badira irakurle batzuk –gehienak– lehen urtetik parte hartzen dutenak. 8-10 lagun elkartzeko gara Zumaian, bisitan datorren idazlearen arabera, gehiago. Talde polita da gertutasunez hitz egiteko. Dagoeneko elkar ezagutzen dugu eta konfiantza eta giro onean aritzen gara. Urtero gerturatzen da kide berriren bat ere, atea beti daude zabalik.

## **Irakurle taldearen helburu argiena irakurtzea eta irakurritakoa taldean elkarbanatzea eta aberastea dela aipatu zenuen *Baleikek* 2014an egin zizun elkarriketa batean. Horrela jarraitzen al du?**

Bai, oso kontu sinplea da: elkarrekin egon, bakarka irakurritakoa taldean konpartitu, idazketaz, liburuez, istorioez, pertsonaiez hitz egin, idazleak ezagutu. Hizketa goxoa hilean behin, plazer txiki bat.

## **Zein da zure betebeharra taldearen barruan?**

Galderak egitea, entzutea, gaiak ateratzea, liburuen ertz diferenteetatik tiratzea, nire iritzia ematea, idazleari abegi egitea, aspaldiko irakurketak gogora ekartzea, liburu interesgarriak proposatzea... Hobeto irakurtzen ikastea ere bada helburu bat, gehiago eta sakonago gozatzeko, saiatzen naiz gako batzuk ematen.

## **Ikasturtean zehar irakurtzen diren liburuak aukeratzeko irizpidea aldatu egin zaizu urteen poderioz?**

Ez dut uste askorik aldatu denik: liburu berriak eta zaharrak tartekatzen ditugu, jatorrizkoak eta itzulpenak, genero desberdinetakoak (nobelak, ipuinak, saiakerak, poemarioak, kronikak...). Liburu onak proposatzen saiatzen naiz, diferenteak idazleetan, gaietan, estiloan... plazer literario desberdinak haztzen.

## **Idazleak ere etortzen dira saioetara beraien liburuen berri ematera eta taldekideen iritzia jasotzera. Zu zeu idazlea ere bazara. Tokatu zaizu inoiz gonbidatua izatea? Zer moduzko esperientzia da?**

Irakurle talde askotan izan naiz. Esperientzia aberatsa da eta estimatzen da irakurleekin tratua izatea, idatzi, bakardadean idazten baitugu.

## **Zein izaten da idazlearen lana taldera joandakoan? Zu asetu izan zaitu edo konpromisoz edo marketin modura egin duzu?**

Idazle lanaz hitz egitea: hartutako erabakiez, kezkez, metodoez, gogoetaz, pertsonaiez, dialogoez, hasierez, amaieraz, norbere irakurketei buruz... Gustatzen zait jendearekin egotea. Hala ere, egia da, liburu berarekin irakurle talde askotara joan izan naizenetan aspertu izan naizela neure buruari entzuteaz, eta sentitu izan dudala beharra isiltzeko eta berriro barnera biltzeko. Egindakoaz hitz egitea polita eta aberasgarria da neurri bat arte, baina iristen da momentu bat liburuak atzean uzteko beharra sentitzen dudana.

## **Irakurle taldeak sortzeak onura ekarri dio literaturari?**

Harkaitz Canok hil beila gisa definitu zituen aspaldi. Parte hartzen duten irakurzaleentzat gunee zoragarriak dira, baina oso gutxi irakurtzen da orokorrean, eta hori ez dute irakurle taldeek soluzionatuko. Kultura zokoratuta daukagu, zer esanik ez euskal kultura eta literatura. Guk geureari eutsiko diogu, honexek bizi gaitu eta.

## **Egun, ezbairik gabe, irudiaren gizartean bizi gara. Zer egin behar da irakurzaletasuna sustatzeko?**

Irakurri. ■■■



## 519 segundo

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** PEIO ROMATET

Canon Mark III + Canon 16-35  
+ Lucroit ND 9 iragazkia.

Iragazki edo filtro batzuk erosi eta gero, probatzera irten nintzen.

Argazki honetan erabilitako iragazkiaren funtzioa argia gutxitzea da.

Eta zertarako kendu argia? Zer lor dezakegu?

Obturadoreak denbora gehiago egon behar du zabalik. Zertarako?

Argazki honetan daukazue adibide bat.

Iragazkirik gabe, klik batean, 1/125 segundo beharko nituzke argazki arrunt bat ateratzeko.

Iragazkiarekin, berriz, 519 segundo behar izan nituen, ia bederatzi minutu.

Segundo horietan mugitzen den guztia argazkian "markatuta" gelditzea lortuko dugu; kasu honetan, lainoen joan-etorria eta uraren efektu hori.

San Telmo berritu zutela-eta, argazki berezi bat nahi nuen. Eguerdian joan nintzen eta hauxe da lortu ona. ■■■







ANTTON PEÑALBA

# Ongi etorri, Larraina!

**J**aio da Larraina euskara taldea, herriko euskararen komunitatea batu, nortasuna eman eta ahaldundu nahi duen taldea. Eta jaiotzearekin batera, herritar askori galdera bat etorri zaigu burura: gaur egun, XXI. mendearen hasieran, beharrezkoa ote da herrian euskara talde bat? Eta beharrezkoa bada, zertarako?

Ez da herrian izan den lehenengo euskara taldea. Zumaian aldika-aldika beti izan da gure identitatearen zutarrria den euskara defendatu, hauspotu, indartu eta biziberritzeko beharra, gogoia eta ahalegina. Horrela sortu zen Zumaian Gerra aurretiko Batzokiko Antzerki taldea; horrela 60ko hamarkadan Ikastola, horrela Bertso Eskola, Euskal Herrian Euskaraz taldea,

AEK, Gaueskolak eta azken urteetan Txinparta taldea. Guztiak, euskararen komunitatea hezurramitu eta euskara biziberritzeko ahaleginetan.

### **Beti izan bada horrelako talderen bat, orain zergatik ez?**

Bada bestelako arrazoiren bat ere. Euskal Autonomia Erkidegoko 1982ko Euskara Legeak Euskal Herriko herritar guztiei euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen die: Administrazioarekin euskaraz aritzeko, zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko, hedabideetako emanaldiak euskaraz izateko, lanbide-jarduerak euskaraz izateko...

Errealitateak, tamalez, beste argazki bat erakusten digu askotan: herrira etorri berri den sendagilea edo udaltzaina ez dela euskaraz moldatzen;

herri-lanetako kartelak gaztelania hutsean askotan; uda partean, batez ere, kaleetako hainbat kartel gaztelania hutsean; etxeetako erabileran atzera goazela; jolaslekuetan gero eta gaztelania gehiago entzuten dela umeen artean... Eta horien ondoan, baita albiste pozgarriak ere; esate baterako, herriko gazteen artean erabilerak gora egin duela azken urteotan.

Hizkuntza handien alboan txikiek inertzia beti kontra dute. Nahikoa dugu arnasa hartzeko geldione bat guk utzitako tokia hizkuntza handiek har dezaten. Zaila da bizitza osoan bakarrik borrokan ibili behar izatea eta erraza, berriz, hizkuntza handiren baten aterpean babestea. Historiak erakutsi digu, ordea, eta horren adierazle garbia izan dugu iazko

## HAUXE BAI JENEROA!





## ERREMATEA



SARA IBARGUREN

## Ezagutza

**I**railaren hasieran, prentsaurreko batean Joyce izeneko emakume brasildar bat ezagutzeko aukera izan nuen. Donostian bizi da eta hiru urte eta erdi daramatza euskaltegi batean euskara ikasten. Bertan bizitzen jarraitu nahi du, eta, horretarako, euskara jakitea “garrantzitsua” dela azpimarratu zuen. Doktoretza bat ikastera etorri zen Donostiara eta bertako hizkuntza ikastearekin batera, Euskal Herriaz, bertako jendeaz eta janariaz ere “maitemindu” zela nabarmendu zuen. Janariarena esandakoan, barre egin genuen aretoan geunden kazetariok; baina benetan ilusioz partekatzen ari zen mezua garrantzitsua zen denontzat.

“Oso esperientzia aberasgarria da izan da niretzat jende gehiagorekin harremana izateko aukera izan dudalako”, adierazi zuen pozik. Batzuek euskara ikastea zaila dela esaten dute (hizkuntza guztiak bezala), baina saiatzen denak, Joycek bezala, mundua ikusteko beste modu bat ezagutzen du. Beste batzuen ustez euskara ikastea alferrikakoa dela esatera ere ausartuko nintzateke. Nahigabea ematen dit horrela pentsatzen duen jendea dagoela jakiteak, baina emakume brasildarraren mezu itxaropentsuarekin geratzen naiz. Zorionak, Joyce, zure ahaleginagatik, eta askorentzat eredu izan zaitezela. ■■■

Euskaraldia, euskal hiztunak (euskara hitz egin eta ulertzen dugunok) batu eta elkarrekin aritzen garenean, errazagoa egiten zaigula hizkuntza handien erasoei aurre egitea.

Horra bigarren arrazoia. Herrian euskara taldea izateak onura ekarriko digu euskararen komunitatea sendotu eta erabilera indartzeko.

### Zer egin behar du gaur euskara talde batek?

Azken urteotan askotan entzun dugu euskalgintza krisian dagoela. Egia da, baina nik esango nuke, krisi aktiboan dagoela. Badakigu orain arteko bideari beste norabide bat eman behar diogula, geldialditik atera eta egindakoa sendotzeko. Baina, aldi berean, euskararen komunitatea bizirik dago, bide berrien bila. Hori da nik Larrainari hartu didan

tankera. Bide berrien bila lan egiteko gogoia.

Euskararen komunitatea aktibatzea da erronka, duen egitekoaren kontzientziiaz jabearaztea. Horretarako, eragile lanak egin, euskararen komunitatea akuilatu, erabilera sustatu eta euskararen komunitatetik aparte dauden herritarren konplizitatea bilatu behar da; adostasun sozialak lortu behar dira. Eta, aldian-aldian hizkuntza eskubideak aldarrikatu ere bai.

Ezkortasuna albora utzi eta bizipoza erakutsi behar dugu, eta hori antzematen diot Larraina euskara taldeari.

Ongi etorri, Larraina euskara taldea! Ibilbide oparoa izan dezazuela opa dizuet herriko euskararen komunitatea indartzeko eta sendotzeko hartu duzuen lanean. ■■■



# PUBLIZITATEA



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943-86 23 09



**diseinua inprimatzea**

Alai 8, 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
tel.: 943-14 31 22 ■ fax.: 943-14 31 20  
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



**Agurtzane Okindegia**

Erribera 2 • 943-86 21 52



**AITA MARI**  
Jatetxea

☎ 679 10 31 67  
aitamarijatekxoa@gmail.com  
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



**AIZPURUA**  
LIBRURU  
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943-86 15 69



**AL-ANON**

Alkoholikoen senide eta lagunen elkarteak  
Tel. 650 26 59 63  
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00  
larunbatetan, 19:00-21:00



**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88  
943-14 32 61



**Amata**  
taberna

tel.: 943-54 31 64  
amataberna@gmail.com  
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)




**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4  
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943-86 16 31



**OKINDEGIEN**  
Arkupen

Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21  
ZUMAIA

**OCI-EDER**



**ATARI**  
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



**BOSCH Service**

Bosch Car Service

**Autos Zumaia**

Gasolina injezioa  
Diesel injezioa  
Elektrizitatea/Elektronika  
Piztea

Balaztak, ABS, ESP  
Mantentze mekanika  
Motorraren mekanika  
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5  
autoszumaia@bosch-bos.com

Tel. 943-86 14 85



**Azkue**

www.ricardoazkue.com  
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51  
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



943-86 02 75  
697 81 24 92  
batzokizumaia@gmail.com  
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6  
Zumaia (Gipuzkoa)

**bai bidea**  
Taberna · Jatetxea  
Bar · Restaurante



Finés  
frantses  
ukraina  
ingelesez  
espagnolez  
katalanez  
katalanez  
suomi baski  
gatalan  
frantses  
italiar  
frantses  
katalanez  
ingelesez  
ingelez baski katalan

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06  
bakun@euskalnet.net



**Basodi**  
albaitaritzak

filbaitaria  
Maki Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943-14 33 10  
veterinaria@basodicalinet.com  
www.basodicalinet.com

Goizez: 11-13 / Arratsaldez: 16-18:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia  
Larriak: 605 72 87 07 Etxez ebako zerbitzua



**BEHEKO PLAZA**  
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Piztak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**


Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943-86 17 00



# Uretako izaki bizidunak ulertuz

Duela 15 urte ireki zituen atea Mutrikuko Kardala akuakultura eskolak. Urte hauetan guztietan sektorean egonkortsu eta ezagun egin da. Sorrera hartako partaideak izan ziren Imanol Garate eta Inaxio Manterola biologo zumaiarrak. Ordutik irakasleak dira, eta duela 10 urtetik hona baita Batirtze Letamendia ere. Hiruren bitartez eskola ezagutzeko eta akuakultura zer den ulertzeko aukera izan dugu.


Testua: **Izaskun Urbietta Esnal**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Inaxio Manterola**.



Irakasle talde bat itsasotik jasotako izaki bizidunak aztertzen.

Batirtze fitoplankton gelan, hazkuntza osagarriko elikagaiak gainbegiraten.

Izokinak.



**U**retako izaki bizidunen hazkuntza ikertu eta garatzen du akuakulturak. “Modu errazean esanda, uretako abeltzaintza eta nekazaritza da”, azaldu dute. 2004an ireki zituen atea Mutrikuko Kardala akuakultura eskolak. Orduan horrelako eskola bakarra zen EAEn, eta egun ere horrela izaten jarraitzen du. “Hurrengo gertuena Pontevedran dago, eta bestela, Tarragonan”, azaldu dute. Horiez gain, Andaluzian eta Kanariar Uharteetan daude beste eskola batzuk.

Kardalaren sorreran Imanol Garate dago, egun eskolako zuzendaria eta moluskuen hazkuntzarako irakasgaiaren irakaslea den biologo zumaiarra. “2000. urtean Mutrikuko institutura joan nintzen biologiako irakasle gisa, baita hurrengo urtean ere. Han nengoela akuakulturarekin zerikusia zuen Lanbide Heziketa jarri nahi zutela esan zidaten”, kontatu du. Hala, Mutriku Lantzen Garapen Agentziako arduradunarekin elkarlanean, ikasketa horiek diseinatzeko hasi zen. Lan hori osatzeko, Estatu mailan martxan zeuden beste ikastetxeetako arduradunekin harremanetan jarri zen. 2003ko abuztuan, Lanbide Heziketaren proiektua aurkeztu zuten Hezkuntza Sailari eta baiezkoa jaso ondoren, 2004-2005 ikasturtean jarri zen martxan.

“Irakasleak behar nituen, itsasoko kontuetan adituak, eta nire lehen erreferentzia Inaxio Manterola izan zen. Orduan Zumaiako Institutuan zegoen biologiako irakasle lanetan. Proiektua komentatu nion eta baiezkoa eman zidan”, kontatu du Garatek. Lehen ikasturte hartan 11 ikasle izan zituzten, horietatik zortzi unibertsitatetik etorriak. “Ilusioarekin hartu genuen proiektua, etorkizun handia izango zuela pentsatu genuen, horrelako zerbait jartzeko momentu egokia zelako”, esan du Manterolak.

Batirtze Letamendiak biologia ikasi zuen eta, ondoren, master bat egin zuen akuakulturaren inguruan. Irakasle gisa Eibarren hasi zuen ibilbidea, baina lau hilabete pasa eta gero, Mutrikura egin zuen jauzi. “Proba bat egin nuen, eta halaxe sartu nintzen duela hamar urte”, gogoratu du.

**Erreferenteak**

Eskola gizartearen beharretara ongi moldatu dela uste dute. “Eskolak garapen ona izan du. Gure helburua beti izan da akuakultura ezagutzea eta horretan erreferenteak izatea, eta uste dugu lortu dugula. Gero eta ezagunagoa da akuakultura, baita eskola ere”, aitortu dute irakasleek.



Alderantziz, akuakulturaren sektoreak ez du behar besteko garapena izan. “Lanbide Heziketarekin hasi ginenean erreboiloak produzitzen zituen bi enpresa zeuden, eta handik bi urtera, ezta bat ere. Sektorea gaizki zegoela? Bai, baina ez gure eraginez. Hala ere, gaur egun badirudi pixkanaka indarra hartzen ari dela. Amuarrainak dituen enpresa bat dago, muskuiluak egiten duen beste bat hasi da, eta Orroako lantegiak ere badirudi jarraitzeko asmoa duela”.

Ikasleak, baina, alor askotarako prestatzen dituzte. Irakasgai nagusiak dira arrain, molusku, krustazeo eta hazkuntza osagarriako produkzioarako teknikak eta kudeaketa; akuarologia; akuakulturako instalazioak, berrikuntza eta automatizazio sistemak eta akuakulturako teknika analitikoak eta osasun kontrolerako metodoak. Garate moluskuetako irakaslea da, Manterola krustazeoetakoa eta Letamendia, berriz, akuarologia eta hazkuntza osagarrietakoa. “Arrainak, krustazeoak eta moluskuak jateko eta hazteko behar dutena prestatzen dugu hazkuntza osagarrietan: horretarako, zoologia, fitoplaktona, mikro algak, artemia eta abar lantzen eta ikasten ditugu”, azaldu du Letamendiak.

Lan merkatutarako goi teknikariak prestatzea da akuakultura eskolaren helburua, eta bertako ikasleak hainbat esparrutan lan egiteko ezagupenekin irteten dira. “Donostiako edo Getxoko aquariumetan lan egiten ari diren asko gure ikasle ohiak dira; landare, lore eta maskotak saltzen dituzten dendetan ere eskari handia izaten dute. Baita beste leku batzuetan ere: produkzio zentroetan, ikerketa zentroetan, laborategietan, farmazietan, igerilekuetako urak analizatu eta mantentze lanetan... Lan munduratzeko abaniko nahiko zabala dute, egia esan”, kontatu dute.

Hirurek itsasoarekiko duten maitasuna begi bistakoa da, eta ikasleei ere pasio hori erakusten saiatzen dira. Letamendiari, adibidez, txikitatik datorkio zaletasuna. “Umetan andarrikak, izkirak, txoazkinak, olagarroak eta abar ikusten nituen eta horiez ikasi nahi nuen, horregatik ikasi nuen biologia, eta gero akuakulturako masterra”. Manterolak eta Garatek, berriz, urteen poderioz ikasi dute orain dakitena. “Manterolak itsasoarekiko eta bertako izakiekiko duen zaletasuna ez da bakarrik ezaguna, epikoa baizik. Nik bere garaian itsas biologia egin nahi nuen, baina azkenean biologia ikasi eta botanikan espezializatu nintzen. Hala ere, beti izan dut itsasoa eta bertako izaki bizidunak ulertzeko grina hori; beraz,



Abakandoa.

Lazunak.

Anemona, Mutrikun zopaberu.



Ostrak neurtzen.

etengabe ikasten aritu gara”, jarraitu du Garatek.

Familia baten moduko taldea osatzen dute Kardala eskolako irakasle eta ikasleek. Ikasle asko Mutrikun bizi direla kontatu digute; izan ere, dezente dira, esaterako, Gasteiz, Burgos, Errioxa eta Madriletik etortzen direnak.

### **Akuakulturaren helburuak**

Kardala eskolara sartzen diren guztiek aquarium handi bat topatuko dute beheko solairuan, eta, bertan, hamar espezie ezberdin ikusi ahalko dituzte. Lehenengo pisura

joanda, berriz, akuakulturako arrain, molusku eta krustazeeok daude, bakoitza bere igerilekuan sartuta. Horien ondoan, hazkuntza osagarriko elikagaietako gela eta laborategiak daude.

Krustazeeoi dagokienez, hauek dira eskolan aurki daitezkeenak: abakandoa, andarika, txangurroa, izkira, otarrainxka... Moluskuetan, aldiz, olagarroa, muskuilua, ostra, txirla... Amaitzeko, arrainen kasuan ur gaziko eta ur gezakoak dituzte. Lehengo multzoan lazuna, lupia, urraburua eta erreboiloa, eta bigarren taldean, amuarraina eta izokina. “Gure ezagupenak horiei esker handitzen dira, zuzenean beraiekin egiten dugu lan: horiek dira gure testuliburuak. Akuakulturako enpresetan normalean ezberdin izaten da: espezie gutxi, baina kantitate handiak izaten dituzte”, kontatu dute.

Zer egiten dute, ordea, izaki bizidun horiekin? “Akuakulturan lantzen diren espezieak giza kontsumorako dira. Guk ez ditugu kantitate handiak hazten, eta, beraz, guk jaten ditugu eta sobran gelditzen badira horiekin zer egin pentsatzen dugu. Ugaltzaileak direnak berriz jartzen ditugu eta bizi zikloa ongi ixten dugu”, kontatu dute. Ildo horretatik, animalien ongizatean arduratzen direla ere nabarmendu dute. “Ongi zainduta ditugu. Gure helburua ere bada teknikari kontzienteak sortzea, hau da, jakitea gizakiaren erabilpen txarrak zer eragin duen ekosisteman. Horregatik, etika ere lantzen dugu, azkenean eskola bat gara. Produkzio zentro batek agian errentagarritasuna bilatuko du, baina gure etekina psikologikoa eta pedagogikoa da. Gure asmoa da, beraz, ikasleak jakitun izatea akuakulturak zer arrisku sor ditzakeen”, azpimarratu dute.

Akuakulturak badu beste helburu nagusi bat: itsasoko izaki bizidunen birpopulaketa. Azkenean, desagertzeaz dauden espezieak bizirauteko modu bakarra izango da. “Dena izorratzen ari gara, eta naturak ez dio denari eutsiko: ornogabeak, krustazeeo txikiak... Beraz, horiek mantentzeko era bakarra izango da”, adierazi du Letamendiak. “Ur azpian gertatzen dena ez da ikusten eta badirudi libre dagoela bertan edozer gauza egiteko. Itsasoa infinitua da, bota zikina, itsasoak jango du eta!”, pentsatuko dute askok.

## **FAMILIA BATEN MODUKO TALDEA OSATZEN DUTE KARDALAKO IRAKASLE ETA IKASLEEK**

## **ASMOA DA IKASLEAK JAKITUN IZATEA AKUAKULTURAK ZER ARRISKU SOR DITZAKEEN**




‘Arrantzatzeko arraina ez dagoela hemen? Urrutiago egongo da, lasai, ez da eta bukatuko’, beste batzuk. Kontzientzia falta dago oraindik, ematen du gauzak aldatzen ari direla, baina...’, gaineratu du Garatek.

**Akura proiektua**

Akuakulturako zikloa irakasteaz gain, hainbat proiektu aurrera ateratzen dituzte eskolan bertan. Horietako ezagunena eta orain martxan dutena Akura proiektua da. “Lazunaren ezaugarriak aztertu, hazi daitekeen ikusi, horretarako zer teknika behar den eta zer emaitza ateratzen den aztertzen ari gara”, kontatu du Garatek. Duela bi urte hasi ziren lanketa horretan hainbat eragilerek: unibertsitatea eta ikerketa zentroak. “Aurten amaitzen zaigu proiektua garatzeko dirulaguntza, baina aurrera jarraitzeko perspektiba onak ditugu. Arrantza Sailak proiektu estrategikotzat hartu du; beraz, beste bi urtetan jarraitzeko asmoa daukagu”, jarraitu du.

“Jende askok pentsa dezake zergatik aukeratu den lazuna, zikinean bizi den arraina delako, baita asko daudelako ere. Akuakulturak badu paradoxa bat: guk jaten ditugun arrain denak haragijaleak dira. Munduan ekoizten diren arrain guztiak pentsuarekin elikatzen dira eta pentsu hori egiteko osagaietako bat da harrapatzen den antxoetako haragiarekin egiten den arrai irina eta olioia. Orduan, arraina hazteko arraina kontsumitzen ari gara. Abeltzaintzan, berriz, denak belarjaleak hazten ditugu. Akuakulturaren jasangarritasuna landu behar da. Horregatik, arrain irin eta olio gutxiengatik duten pentsuak sortu behar dira. Zer esaten du Europar Batzordeak? Badagoela espezie bat orojalea dena eta hori lazuna da. Gainera, esaten da horiek izan daitezkeela etorkizunean akuakultura jasangarri baten espezie kabea. Horregatik aukeratu genuen lazuna, jakinda hemen okerrago ez dagoela. Hala ere, lazunak ez du batere kulparik. Urak guk zikindu ditugu eta lazunak meritua du guk zikindutako ur horietan bizitzeagatik”, kontatu dute.

Proiektu honetan hainbat eragile daude buru-belarri, eta sukaldarien laguntza ere garrantzitsutzat jotzen dute, lazunaren zabalkundean eta ezagupenean asko baitute esateko. Horietako bat da Andoni Txintxilla sukaldari zumaiarra. “Gure aliatuetako bat da, eta bere lanari esker asko ikusarazi eta ezagutarazi da lazuna. Arrainarekiko konplexu guztiak kenduta ditu eta gauza eta plater berriak ari da probatzen. Egia da kosta egiten dela gure sukaldaritzan arrain hori produktu bezala sartzea, azkenean jendeak ez duelako jaten hain erraz, baina horretan ari da”. ■■■



Ostarrena astebete.

C. Maenas postlarba.

Izkirak arrautzean..

**BIYONA**  
BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA  
943-14 34 43  
www.biyona.net ·

SUKALDEAK

Bainugelak

ETXEKO ALTZARIAK

Papel pintatuak

LEIHOAK

Keramika

GREMIOEN KOORDINAZIOA

# "Emakumeen askapena jendarte osoa askatzeko bidea da"

MADDI GALLASTEGI BRIGADISTA

Kurdistango emakumeen mugimenduak antolatutako brigada feminista izan da aurten Maddi Gallastegi. "Emakumeak iraultzaren abangoardia diren lurralde askeaz" eta han ezagututakoaz aritu da Gallastegi *Baleikerekin*.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Maddi Gallastegi**.

**N**ola sortu zityaizun Kurdistanera bidaiatzeko aukera?

Nik Kobaneko gerraren harira ezagutu nuen kurduen borroka sakonago, 2014aren bueltan. Otsailean Bilgune Feministako kide den lagun baten deia jaso nuen, Martxoaren 8aren harira Kurdistanera bidaiatuko zuen brigada feminista bat osatzekotan zela eta bi leku zeudela, ea animatuko ote ginen. Lan kontuak ixteko egun bat behar nuela esan eta *tierra, mar y aire* mugitu ostean, baiezkoa eman nion hurrengo egunean bertan. Kurdistango emakumeen mugimenduak gonbidatu zuen brigada, eta *Jineoloji*-ren [emakumeen zientzia bezala ezaguna] aldeko elkarteak koordinatu zuen Euskal Herriatik. Euskal Herriko mugimendu feministaren parte diren hainbat eragile gonbidatu zituzten, eta guztira sei emakumez osatu zen brigada, Bilgune Feministak gonbidatu ninduen ni. Emakumeak iraultzaren abangoardia diren lurralde askera bidaiatzeko genuen gogoia ez zityaigun gorputzean kabitzen. **Kurdistan estaturik gabeko munduko herririk handiena dela esan ohi da. Nondik nora ibili zineten zuek?** Bai. Kurdistan bezala ezagutzen dugun lurraldea, gurearen antzera, ez da mapa inperialistetan agertzen, Persiar eta Otomandar inperioen menpe lehenik, kurduak gero Iran, Irak, Siria eta Turkiako estatuen menpe daude ia Lehen Mundu Gerra

amaitu zenetik. Iraneko Estatuaren menpe dagoen zati kurdueraz *Rojhelat* deitzen diote, Irakeko Estatuaren parte denari *Bashur* (hemen autogobernu antzeko bat daukate, Masud Barzaniren agindupean), Turkiako Estatuaren menpe dagoen territorio kurdua *Bakur* izenez da ezaguna, eta Siriako Estatuaren parte den kurduen zonalde autonomoa Rojava da. Guk Bashurreko Suleimaniyah hirian lur hartu genuen. Brigadako lehen eta azken gauak Suleimaniyahko etxe batean igaro genituen; gainerako egun guztiak, berriz, Rojavan. Rojava hiru kantoitan banaturik dago: Afrin, Kobane eta Cizire. Lehen, kantoia batetik bestera joateko siriarrak gobernauk edo Estatu Islamikoak kontrolaturiko errepideetatik igaro beharra zegoen, baina gero eta eremu gehiago liberatu ahala kantoiak hazi eta elkarren artean konektatu dira. Guk Ciziren geneukan gure kanpamendu basea, Amude izeneko herrixkan. Brigada erdian bizpahiru egun pasatzera eraman gintuzten Kobanera eta Raqqara. Betiko lagunak bagina bezala zaindu gintuzten.

**Estatu Islamikoaren erasoaren ondoren, nola ari dira berreraikitzen Kobane?**

Rojavako iraultza Kobanen hasi zen, 2012ko uztailaren 19an. Kurduak Al Assaden gobernuaren eraikinak hutsarazi zituzten, eta bandera gorri, hori eta berdeak atera zituzten nonahi. Kaleetan





Martxoaren 8a Qamishlon.

kurduera entzun zitekeen, eta beldurrik gabe abesten zituzten euren lemak. 2014an eraso hasi zuenetik Elk Kobane hiriko % 80 edo gehiago suntsitu zuen. Hiria ikono bihurtu zen orduan, sekulako oihartzun mediatikoa izan zuelako SDFek (*Sirian Democratic Forces* ingelesezko siglak), YPG Herri Defentsarako Unitateek eta YPJ Emakumeen Autodefentsa Unitateek erakutsitako indar eta ausardiak. Gure harridurarako, hiria zutik dago, auzo bat izan ezik, Turkiak eraikitako mugako harresiari ia itsatsirik dagoena. Hiriaren memoria bizirik mantentzeko ez dute harri bakar bat ere mugitu erresistentziaren auzoan, museo bizi moduan daukate. YPGko kide baten eskutik bisitatu ahal izan genuen. Bertako emakume batek kontatu zigun Elren erasoaldi betean nola senarrak esan zion seme-alabak hartu eta etxera sartzeko berehala, eta gutxienez ordubete igaro arte ez ateratzeko etxetik. Atera zenean odol putzuak eta gorpuak eta gorpuak besterik ez zituen ikusten lurrean, tartean bere senarrarena. Etxe bakanen batzuen eskeletoek zutik zirauten, tiroz josita, baina gehienak eraitsi egin zituzten. Ezkerretara begiratuta, Bakur, harresiaz bestalde, eta turkiar bandera erraldoi bat airean. YPGko lagunak kontatu zigun beraiek AK-47 [kalashnikov izenez ere ezaguna] fusilekin ari zirela borrokan, Turkiak muga ixten zieten Bakurretik Kobanera janaria zekarten kurdueri, edota motor eta

kamioietan Kobanetik Bakurreko ospitaleren batera zaurituak eraman nahi zituzten kide kurdueri. Aldiz, armaz eta diruz lagundu zuen EI, zaurituak sendatzeko laguntza eskaintzen zieten, baliabide logistikoak, mugak ez zuten eragin bera batzuentzat eta besteentzat. Gerra, gainera, ez zen amaitu Elk hiritik alde egin zuenean, ohiko estrategia baita alde egin aurretik ahalik eta eremurik zabalena minatzea. Horrek esan nahi du gerora ere hildakoak asko izan direla, gu iritsi ginenerako, ordea, minak kenduak zituzten. Kurdistandik itzuli ginenetik Deir Ez Zor eta Baghouzoko eremuak liberatu dituzte milizia kurduak, Elren azken gotorlekuak Sirian, baina Turkiak eta bestelako esku ikusezin bezain boteretsuek ez diote utzi haiek elikatzeari eta nukleo berriak noiz berpiztuko alarmak piztuta dituzte. Dena den, Kobane berreraikitzea ez da lan makala izan, eraikinak altxatuko dituzte, baina animoak, herria? Familia erdia galduta, eguneroko lanean fin jarraitzen dute gehienek, eta aurtengo Newroz egunean ere (urte berri kurdua) bandera hori, gorri eta berdeak altxa dituzte Mishtenur muinoan.

Bestelakoa izan zen Raqqan gertatu zena. Estatu Islamikoaren kalifata fisikoa zena 2017an liberatu zuten, Elren bandera beltzak jaitsi eta YPG eta YPJren banderaz josi zuten hiria, ehunka hildako atzean utzita. Urte eta erdi geroago



Kobaneko 'shhidlik' edo eroritako gudarien hilerria.

bisitatu ahal izan genuen guk, eta hiriak suntsituta jarraitzen zuen. Elren diktadurapean bizi izandakoak kontatu zizkiguten bertako emakumeek. Unibertsitate zaharrera eraman gintuzten, hiriko muino batean. Elk hiria hartu zuenean emakume *yazidien* salerosketarako merkatu bihurtu zuten. Bortxatuak, erailak, esklabo izateko erosiak, plazaren erdian buruz behera zintzilikatuak, bakartuak, umiliatuak izan ziren Raqqako emakumeak Elren erregimen faxistaren pean. Egun Raqqako emakumeen % 65 aktiboki lanean ari da Raqqako autoadministrazioaren berreraikuntzan, komunetan eta egitura politikoetan. Baina kasua bestelakoa dela nioen Kobanekoak mundu mailan izan zuen oihartzuna dela-eta gobernuz kanpoko erakundeek eta abar dirutzak inbertitu zituztelako hiriaren berreraikuntzan; Raqqakoak, berriz, ez du halako oihartzunik izan, eta oraindik hiriko bazterrek pelikula bateko eskenatokia dirudite, zoritxarez errealak. Iltzatuta geratu zaigu emakume haiek esan zigutena, ezin zutela sinetsi gerrilla hirira iritsi zenean, lehenengo lerroa kalashnikovak eskuetan zituzten berrogei emakumez osatua zela. Bizitza loratzen ari zen, hainbeste heriotza artean.

**PKK edo Kurdistango Langile Alderdiaren presidente Abdullah Öcalanen Konfederalismo Demokratikoak nazio askapenerako mugimenduaren lehen lerroan kokatzen ditu emakumeak.**

Iraultzaren bermea dira, bai. Garrantzitsua da azpimarratzea Abdullah Öcalan Konfederalismo Demokratikoa ideologikoki garatu duen askapen mugimenduaren liderra izanagatik ere, sistema honen gauzatzea lan ideologiko-politiko kolektibo baten emaitza izan dela, eztabaida eta kontraesan

eta hainbat korapiloren askatzen sortua izan dena, eta etengabeko eraikuntza prozesuan dagoena eguneroko praktika politikoan. Prozesu horretan parte hartze aktiboa izan zuen eta normalean bigarren planoan geratu izan den pieza garrantzitsu bat da Sakine Cansiz, 2013an beste bi militante kurdurekin batera Parisen eraila. Konfederalismo Demokratikoa 2005ean aurkeztu zuen Öcalanek. PKKk perspektiba marxista-leninista zurrunago batetik aritzetik eta Estatu kurduaren aldeko bidea jorraztetik, nazio-estatu sistemari kritika zorrotza egin eta demokrazia erradikalean eta autogestioan oinarritutako sistema bat garatzeari ekin zion, jendartea politizatze bideak eta espazioak eskaini eta emakumeak eta gazteak abangoardia diren sistema. erlijio, etnia eta nazio desberdinetako herritarrek elkarbizitzan eraikiko dutena. Ekosozialismoaz ere ari gara, pentsaezina delako ingurumena zaindu daitekeela sistema kapitalista elikatzen jarraitzearekin batera. Ekialde Hurbileko herri zapalduetara hedatu nahi duten sistema da, eta ausartzen ziren esatera mundu guztira hedatu beharrekoa ere badela.

Rojavan emakumeak 2004an hasi ziren etxetik ateratzen: atea jo, bertako emakumeekin te bat hartu edo bazkaldu, entzun, kezka eta ezinegonak konpartitu, elkarrekin egin zezaketenaren inguruan eztabaidatu... inurri lanean. Hori guztia, ordea, Sakine Cansiz eta beste hainbat militante emakumek aurretik mendian, unibertsitatean eta militantzia esparru anitzetan egindako lan guztiari esker izan zen, aspaldidanik jarri zutelako mahai gainean ez dagoela herri librerik emakume librerik gabe.

**Bere egiturak ditu emakumeen mugimenduak.**

Batetik, egitura mistoetako lehendakaritzakide sistema daukagu. Rojavan, komuna txikienetik hasita Siriako ipar-ekialdeko autoadministrazioaren markoraino, lehendakaritzakide araua betetzen da, ordezkaritza kargu guztietan daude gizonezko bat eta emakumezko bat. Kuotak ere zaintzen dituzte, eta egitura misto bakoitzak paraleloki emakumeek soilik parte har dezaketen egitura propioa autonomia du.

Bestetik autodefentsa unitateak, *Mala Jin* edo emakumeen etxeak, akademiak, kooperatibak, tribunalak, hedabide propioak (*JinTV*, e.a.)... sortu dituzte. Indarkeria matxistarekin amaitzeko hainbat lege zehaztu zituzten, eta emakume arabiarrek, asirioak, turkomanoak... Batu dira

autodefentsa unitateetara eta Konfederalismo Demokratikoa osatzen duten egituretara.

**Noiz eta nola hasi zen emakumeen mugimendua? Borroka armatuarekin batera ala geroago?**

Kurduak zioten Rojavako iraultza ‘emakumeen iraultza’ bezala ezaguna den arren, emakumeen iraultzetariko bat dela eta munduko herri zapalduetako edozein altxamendu emakumeek sustengatu dutela, bai lehen lerroan egonik armak eskutan, baita armak hartuko zituzten guztien sustengu eta zaintza lanetan ere. Beste kontu bat da heroi iraultzaileak gizonak izan direla, *mass mediak* Angelina Jolierekin konparatzen dituen emakume kurdu gerrillariak pantailan jarri dizkigun arte, kanonikoki ederrak eta exotizatuak. Eta hori da ez dutela ezer ulertzen, edo are gehiago, ulertuta ere gerrillari jefaza hauen eta borroka honen erabilera guztiz perbertsoa egiten dutela, Angelina Jolie kurdua deitu diotenak sistema patriarkalaren aurka hartu zituelako armak, baita medio hegemoniko patriarkalen aurka ere.

PKKk borroka armatua 1984an hasi zuen Estatu turkiarraren aurka, gerora HPG *Hêzên Parastina Gel* edo Herri Defentsarako Unitateak bihurtu zen gerrillaren bitartez. 84an emakume askok jo zuten mendira estruktura patriarkal eta feudaletatik askatzeko aukera ikusi zutelako, baina 1995. urtera arte ez zen martxan jarri emakumeen egitura propioa, emakumeen mugimendu autonomoa. 2005ean sortu zen Yekitiya Star, gerora Kongra Star izena hartu duena, emakumeen antolakunde autonomo guztien bilgunea. Emakumeen askapena jendarte osoa askatzeko bidea da.

**Nola antolatzen dira Emakumeen Autodefentsa Unitateak?**

Hiru betebeharrak nagusi dituzte; herria babestea, emakumeen askapena eta jendarte aske baten eraikuntza. YPJko kideek argi zuten autodefentsa unitateak indartu behar zirela, Sinjarren gertatu zena berriz ez gertatzeko. Sinjar mendietan emakume *yazidi* asko bizi dira, emakume *yazidiak* deabruaren alabak dira ElIrentzat. Mehatxatu egin zieten Sinjarreko herritarrei sekulako sarraskia egitear zeudela, eta *peshmergak* (Barzaniren Irakeko Kurdistango unitate armatuak) ez ziren gerturatu ere egin, salduta utzi zituzten arriskuaren aurrean. SDF, YPG eta YPJko kideak joan ziren Sinjarrera korridore bat egin eta ahalik eta biztanle gehien bertatik ateratzeko. Horregatik azpimarratzen



Jinwar, emakumeen herrixka.

dute autodefentsa militarra beharrezkoa dela, ez estrategia inperialistak aurrera eramateko edo beste herrialde batzuk inbaditzeko, baizik eta haiena babesteko; gerra egitea tokatu zaie, bakea lortzeko, eta kide asko hil dira bidean, bizitzeko. Arrosaren teoria erabiltzen dute hori hobeto azaltzeko: arrosarik ederrenak ere arantzak ditu eta behar ditu, ez inor erasotzeko, lorea babesteko baizik.

Autodefentsa, ordea, plano ideologikoan ulertzea ezinbestekoa da, Sinjarreko *yazidiak* salduta utzi zituzten *peshmergek* ez zuten konbikzio politikorik, begiak zabaltzeko saiakerarik egin ezean itsu egotea normala dela usteko dugu, eta zapalkuntzak betikotu inolako galderarik planteatu gabe ikusten eta bizi dugunaren inguruan. Emakume kurduen armarik indartsuena ez da kalashnikova, autoantolakuntza baizik, Rojavako emakumeen % 90 egitura zibiletan dabil lanean.

**Zer irakaspen jaso zenituzten kurduengandik?**

Kurduak dioten modura: *berxwedana jiyane*. Erresistentzia bizitza da. Beharra eta borondate politikoa biak baldin badaude, ez dagoela aitzakiarik iraultza erradikalak martxan jartzeko. Kurdistan muntstro inperialista guztien begi puntuan dago Ekialde Hurbila birkonfiguratzeko zonalde estrategikoa delako, eta barnera begiratzen badugu, egitura patriarkalak eta feudalak guztiz errotuta zituen jendarte batez ari gara, baina erresistentzian bizi dira, kontraesanak kontraesan garaipena marrazten eta gorpuzten dabiltzalako, egunero.

*Geleke spass, eskerrik asko.*

*Jin jiyen, azadi.* ■■■

# Autoen barrenak bizibide

Jose Antonio Peña, motor matxuratuen artetik

1960ko hamarkadatik gaur egunera arteko ibilbidea egin du Peña garajeak. 16 urterekin hasi zen bertan lanean Jose Antonio Peña (Zumaia, 1960), familiako negozioa lanbide hartuta. Tailerraren eta ofizioaren inguruan aritu da *Baleikerekin*.

Testua: **Julen Aperribai**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

**A**utoen industriaren gorakadarekin batera eraldatu ziren batetik bestera mugitzeko moduak, baina paisaiak ere eraldatu ziren. Bide asko errepede bihurtu ziren, eta, herrien arteko bideak ez ezik, herrien barrukoak ere berritu ziren. Denboran atzera egiteak lagundu dezake Peña garajearen jatorria ulertzen. Herrigunean dago kokatuta autoen konponketak egiten dituen lantegia, egun zerbitzuen sektoreak guztiz hartua duen espazioan.

1966an ezarri zuten familiako negozioa, egun tailerra dagoen leku berean. Gazte hasi zen bertan lanean Jose Antonio Peña, aitaren itzalpean. 16 urterekin egin zituen lehen konponketa lanak. “Aitak zeraman negozioa, eta gu haren laguntzaile aritzen ginen”. Etxean laguntzeko beharrak eraman zuen horretara, eta ez hainbeste autoekiko izan zezakeen interesak, onartu duenez: “Familiako negozioa zen, eta, beraz, lana egon bazegoen. Ikasi edo lan egin beharra zegoen garai hartan, eta egoera horrek bultzatuta hasi nintzen ni, gehiegi pentsatu gabe”.

Soldadutzatik bueltan tailerra bere egin zuen Peñak, 22 urterekin. Langile gehiago ere baziren garai hartan; bospasei, guztira. Izan ere, mekanika lan asko egin behar izaten zen orduan, Peñak dioenez. Autoen potentzia txikia zen egun dutenaren aldean, eta matxurak maiz gertatzen

ziren. “Hiru auto klase izaten ziren, baina konponketa asko behar izaten zituzten. Kulatak eta motorrak askotan erreparatu behar izaten genituen. Madril aldera joanez gero, Somosierra inguruan motorra berotzea edo beste edozein matxura izatea oso gauza ohikoa zen, adibidez”. Era berean, autogintza industria hazten ari zen, nabarmen. 1970eko hamarkadan gertatu zen eklosioa, eta autoaren erabilera normalizatu egin zen. “Ez zuten zerikusirik gaur egungo autoekin, baina izan baziren. 1960ko hamarkadan ez ziren hainbeste, baina ni oso gaztea nintzen garai hartan. Lan honetan murgildu nintzenerako, ohikoa zen autoan ibiltzea”.

## Konpontzetik, aldatzera

Hasiera hartatik gaurdaino, erabat aldatu da autogintzaren industria, eta etengabeko aldaketan ari da gaur egun ere, joera berriei erantzun nahian. Merkatua zabaldu ahala, autoen marka berriak agertu ziren, eta indartu, lehendik zeudenak. Aldatzen ari ziren autoak, baita haiekin lan egiteko modua ere. Piezak konpontzetik, aldatzera. Hori izan da mekanika arloan eman den aldaketa nagusietako bat, Peñaren arabera: “Lehen konpondu egiten genituen matxuratutako piezak, baina aspaldi aldatu zen hori. Orain, zaharra kentzen dugu, pieza berria hartu eta jarri. Batez ere, desmuntaketa eta muntaketa lana



*irrimarra*



izaten da egiten duguna”. Potentzia handiko autoak izaten dira oraingoak, eta Peñak uste du haien mantentze lanetan mekanikariek bezeroari segurtasuna eskaini behar diotela: “Ezin da arriskatzeko ibili, eta pieza zahar bat konpondu, luzaroan iraungo duen esperantzarekin”. Era berean, merkatuaren logikak eraman ditu sektore horretako langileak jarduteko modua moldatzera. Autoaren piezen prezioa jaitsi izana nabarmendu du: “Alternadore batek, adibidez, ikaragarri balio zuen lehen, eta, beraz, apurtzen bazen konpontzea izaten zen normalena. Orain, aldiz, berriak fabrikatu beharrean, zaharrak birziklatzen dituzte, eta haien prezioa askoz ere merkeagoa da. Lehen balio zuenaren erdia balio dezake orain alternadore batek, eta prezio horretan ez du merezi lehengoarekin bueltaka ibiltzea”.

Erosoagoa da lan egiteko modu hori mekanikarientzat, Peñak aitortu duenez, baina agian ez lehengoa bezain errentagarria, lan ordu gutxiago behar baitituzte orain lan bera egiteko, eta fakturretan nabari dute hori. Horrekin batera, konponketa lanen aldean, ordezkatze lana lehenetsi izanak autoan aldaketak egiteko aukera ematen du, tailerrera joan-etorrian ibili beharrik gabe. “Askok Internetetik erosten dituzte piezak. indartsu sartu da hemen ere, eta nabari dugu”, dio Peñak. Autoak desegiteko tokietara ere jotzen du jendeak, dioenez: “Matxuraren kostua merkatzeko asmoz, toki horietatik hartutako piezak erabiltzen dituzte. Guretzat errentagarritasuna jaitsi egiten da”.

### Etengabeko aldaketan

Autoen salerosketaren eredu berriek ere zuzenean kolpatu dute mekanikaren sektorea. Izan ere, gero eta gehiago dira mantentze zerbitzuak eskaintzen dituzten autogintza konpainiak, autoa erostearen truke. Bezeroa nolabait blindatzeko asmoa dago

atzean, Peñaren iritziz. “Autoak gero eta merkeagoak dira, eta auto saltzaileen negozioa ezin da horretara mugatu. Bezeroak euren ganatu nahi izaten dituzte, eta mantentze zerbitzuak eskaintzen dizkiete. Horrela, garantia izango dutela esaten diete, nahiz eta ez dagoen hala zehazten duen legerik”. Auto berria erosten duten bezero askok aukera horren alde egiten dutela azaldu du Peñak. Hortaz, bizpahiru urtez, behintzat, auto konpainiak eskaintako zerbitzuak aprobetxatzen dituzte, tailerraren kaltetan. Edonola ere, badira salbuespenak. Esaterako, luzaroan bezero izan dituen bi lagunek berriki esan diote autoa bertara eramaten jarraituko dutela, konpainiak mantentze zerbitzua eskaini arren.

Hain justu, hori da tailerraren helduleku eta irauteko berme nagusia: herritarrek bertako zerbitzuengan duten konfiantza, urte luzez ondutakoa. Aipatutako aldaketek lana asko murriztu badiote ere, egungo neurriarekin gustura da Peña. Langile bakarra izanik, saiatzeko da lan karga handia bere gain ez hartzen.

## Jose Antonio Peña

- **Adina:** 59 urte.
- **Ikasketak:** Batxilergoa bukatu, eta lanean hasi nintzen. Hiru urteko ziklo bat egin nuen ondoren, automozioan.
- **Lanbidea:** Mekanikaria
- **Mekanikaria ez banintz...** tailerren batean egongo nintzateke seguruena, ni hasi nintzen garaian bazegoen-eta lana.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** mendira joatea, itsasoan ibiltzea eta bidaiatzea.



Eguneroko kontuez gain, merkatuan ematen diren aldaketetara egokitzea izaten da lanaren zati bat. Kostu handiko lana da, tresneria etengabe berritu beharra baitago. “Faktura bat egitean, beti pentsatu behar da diruaren zati bat inbertsiorako izango dela”, zehaztu du.

Ofizioa goitik behera eraldatuko duena auto elektrikoen agerpena izango dela uste du, hala ere. Aldaketa horri erantzuteko, uste du tailerrek euren instalazioak guztiz aldatu beharko lituzketela. Errepedean halako auto bakanen

batzuk ikusten diren arren, trantsizioa espero baino motelagoa izaten ari da Peñarentzat. Haien erabilpena hedatzen denerako, uste du Peña garajea azkenetan izango dela.

Familiako negozioan ez dirudi belaunaldi aldaketarik izango denik. Errelebo falta horrek pena ematen diola aitortu du Peñak. “Jarrantuko balu, hirugarren belaunaldia izango litzateke”, adierazi du. Dramatismoa kendu nahi izan dio kontuari, ordea: “Norberak bere bidea egiten du, eta ulergarria da”. ■

**denda:**  
Mendaro marinela, 1  
tel.: 943-14 33 46

**biltegia:**  
Jose M<sup>a</sup> Korta Industriegunea  
Pab. A6.1, 2-5 mod.  
tel.: 943-86 11 17  
fax: 943-86 13 30

**industriarako nahiz etxerako  
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak**

# BAZKIDE KLUBEKO ZOKKETAK



Flysch Surf eskola: Alaitz Aizpurua



Itzurun taberna: Sorkunde Barredo



On Gourmet: Ihintz Linazisoro

## URRIAK 7

On Gourmet: lau lagunentzako pizza handia.

## URRIAK 14

Itzurun taberna: lau lagunentzako jatordua.

## URRIAK 21

Zelai talasoterapia: zirkuitua bi lagunentzat.

## URRIAK 28

On Gourmet: lau lagunentzako pizza handia.



## ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

## DESKONTUAK

**ERTZ INFORMATIKA:** %2ko deskontua.

**ARRUTI MODA:** %5eko deskontua.

**IRUITZ ILEAPAINDEGIA:** Analisi kapilarra doan.

**UKENDU PARAFARMAZIA:** %5eko deskontua.

**EKIN ELEKTRIZITATEA:** %10eko deskontua lanparetan.

**EGOKI BITXIDENDA:** %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

**IRIONDO OPTIKA:** Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

**ENDAÑETA ETXETRESNAK:** %5eko deskontua.

**GOLDEN GATE AKADEMIA:** %20ko matrikulazioan.

**A3:** %5eko deskontua.

**TALAIA:** ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

**ARTAZA KANPINA URBASA:** %10eko deskontua.

**AIZPURUA LIBURUDENDA:** Liburuak %5 merkeago.

**OSKARBI KIROLDENDA:** %5eko deskontua.

**KALARI JATETXEA:** Igandeko afaria %10 merkeago.

**TRAPAIA:** Igandeko bazkariarekin kafea doan.

**KUKITXA:** Erosketak etxera doan.

**PRIMAVERA PIZZERIA:** Pizzak etxera doan.



## ZOZKETAK

**ONURA:** Fisioterapiako lau bono.

**ONGIZAN:** Fisioterapiako lau bono.

**GAINDITUZ:** Lau bono.

**OTEZURI KAFETEGIA:** Bi tarta San Markos.

**MANDALA PAPERTEGIA:** Bost euroko bost bale.

**ITZURUN TABERNA:** Lau lagunentzako afaria hileroko.

**BQD BIDAIAK:** Lau bono.

**ANTZERKIRAKO SARRERAK:** Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

**SANAGUSTIN KULTURGUNEA:** Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

### Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: [baleike.eus/bazkidekluba](http://baleike.eus/bazkidekluba)

E-maillez: [administrazioa@baleike.eus](mailto:administrazioa@baleike.eus)

Telefonoz: 943-86 15 45

# ZIKULU-Saltsa

Gure sorginak ezin du asperduraren aurkako bere edabe magikoa prestatu, osagai garrantzitsuena desagertu zaiolako. Edabe magikoaren formula sekretua denez, ezin da esan zein den osagai hori, baina uste dugu gozo-goza dela. Nolanahi ere, nor demontre izan ote da lapurra? Hemen ageri diren adiskideen artetik zeinek ostu ote dio sorginari osagaia? Ea asmatzen duzun.



Zenbait pista:

- Begiak zabal-zabalik ditu ●
- Belarriak ez ditu tente ●
- Ez da iluna ●
- Arrautzak erruten ditu ●
- Zomorro txikiak jaten ditu ●
- Bere espeziean bakarra da ●
- Ez da narrastia ●

# Labirintoa

Lagundu erroiari bere zuhaitzeraino heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartekak dira.



→

	F	E	G	I	N	P	E	H	E	D	G	L	I
	O	S	E	N	S	Q	B	E	H	S	E	G	G
T	B	O	S	E	Q	E	H	A	N	E	H	S	E
E	A	H	A	J	E	N	U	A	B	U	G	S	O
I	T	A	S	U	Z	B	A	E	Z	I	K	U	T
B	E	H	U	S	A	S	B	E	L	I	T	G	S
I	O	A	N	A	B	L	O	R	E	N	D	N	E
A	B	A	U	H	K	E	L	D	U	A	M	N	N
B	E	C	U	A	H	L	O	E	T	G	I	D	B
R	A	U	A	H	L	O	E	R	A	I	B	D	A
R	E	I	E	C	J	L	A	S	R	A	R	A	

→

Idatzi hemen esaldia. \_\_\_\_\_



## itzala

Zein da mamuaren itzal zuzena?



## Izua

Osa ezazu sudokua, IZUA hitzak dituen hizkiekin.

	I		Z
			I
	U		
A		U	

Bi irudi hauen artean hamahiru alde daude. Ikusten al dituzu?

## Zu bai Hamalau!



## Engainariak

Zati hauetariko lau ondoko iruditik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

**PUBLIZITATEA**



**BASUSTA**  
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Ekezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73  
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38  
asadorbasusta@hotmail.com



**EDU**  
ZUMAIAKO  
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6  
20750 Zumaia, Gipuzkoa  
943-14 30 57

[www.eduoptika.com](http://www.eduoptika.com)

RPS 18/16



**EGOKI**

Eroju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943-86 17 87



**Ekin**  
ELEKTRIKOAK, L.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97  
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**mara** **MÁSMÓV.L**



**ERNIO**  
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



**ERTZ INFORMATIKA**

Portatilen mugikorren  
eta tableten konponketak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95



**Galdona**  
burdindegia

Mendaro marnela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46  
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



**Garaa**

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola

tel.: 943-86 21 81  
Txomin Agirre, s/n  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



**GLENCOE**  
INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha  
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainiki!



**goiko**  
bodegoia

Erribera, 9 · 943-86 13 91



Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
institute  
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha  
tel./faxa 943-86 50 20  
info@goldengateinstitute.com



**Gure Txokoa**  
aberna

Upela plaza, 4  
20750 Zumaia  
Tel.: 943 86 09 70



**DORIA**

Julio Beobide, 2  
943-57 49 86



**ilarzi**

Alai auzategia, 2  
Tel. 943-24 50 20



**INPERNUPE**  
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



**Iriando optika**

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



**IRUDI OTS**

Ikuskizun orotarako solnu  
eta argiztapen alokalirua  
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

# Disfagia



**ROSA AZKUE**

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

## Zer da?

Likidoa edota solidoa irensteko zailtasuna da. Irensteko mekanismoetan gertaturiko akats bat dela-eta. Digestio hoditik desbideratu eta bronkio-zuhaitzetara igaro daiteke.

## Noiz gertatzen da

Buruko traumatismo ondoren, gaixotasun neuromuskularren kasuan, iktus baten ondoren...

## Noiz hartu behar da susmoa

Listu ugariegi jariatzen bada, irensten hasteko geldotasuna badago, likido edo janaria sudurretik ateratzen bada, ahotsean aldaketak badaude, jaten asko tardatuz gero...

## Konplikazioak

- Pneumoniak aspirazioengatik
- Desnutrizioa
- Deshidratazioa

## Tratamendua

Oso kasu larrietan beharrezkoa izan daiteke.

## Aholku baliagarriak

Egunean zehar ohikoak baino jatordu gehiago egin eta kantitate txikiagotan, distraitu eta hitz egin gabe.

Erabili edalontzi baxu eta aho zabalekoak. Ez erabili lastotxorik.

Garrantzitsua da aho-hortzetako higiena.

Ondo eseri behar da jateko, burua aurrerantz makurtuta.

Bakarrik jaten ez badu, haren maila berean eserita eman behar zaio jaten. Koilara mingainean jarri eta esan irensteko. Egon zain ahoan janari apurrik geratzen ez den arte, eta beharrezkoa bada, bi aldiz irentsi dezala. Kantitate txikiak eman aldiro, eta gorputz erdia elbarriturik badu, esan biratzeko burua alde horretarantz, jarrera horretan irensteko.

Kontu berezia eduki behar da likido finekin, kontrako eztarritik errazen joaten direnak dira eta. Errazago hartzeko, gelatinen bidez edo merkatuko lodigarriekin trinkotu daitezke.

Pureak. Komeni da osagaien aroma gordetzea (barazkia, oilaskoa edo arraina) eta oliba olio birjina estrarekin ipintzea, jateak zerbait atsegina izaten jarraitu behar du eta.

**EHUNDURA DELA-ETA, JAKI EGOKIAK DIRA FLANA, ARRAUTZA, ESNEA ETA JOGURTA**

Ehundura dela-eta, hona hemen beste jaki egoki batzuk: flana, arrautza, esnea eta jogurta.

## Disfagiak hobera egiten badu

Dieta elikagai hauekin ere osa daiteke:

### a) Murtxikatzen oso errazak

#### diren elikagaiak:

hezurrik gabeko arrain xerrak, bexamelak, ogi mamia tomate eta oliotan bustia.

Urdaiazpiko egosia oso fin moztuta. Gazta freskoa eta sagar egosia. Hobekuntzak jarraituz gero

### b) Murtxikatzeko errazak

#### diren elikagaiak:

Berdura patatekin, haragi hanburgesak tomate saltsarekin. Fruta heldua.

## Hobekuntza nabaritu arte saihestu beharreko elikagaiak

- Loditasun desberdinak dituztenak: pasta, zopa, esnea zerealekin...
- Zuntza dutenak: anana, zanzuria, urdaiazpikoa, letxuga...
- Azala edota aleak dituzten frutak: mahatsak, marrubiak, tomateak, lekariak azalarekin...
- Elikagai itsaskorrak (gozokiak, ezitia), kurruskariak (ogi xigortua, txip patatak) eta gogorrak (fruitu lehorrak, zerealdun ogiak). ■■■

# PUBLIZITATEA

**IRUITZ ILEAPAINDEGIA**



San Telmo, 12  
Tel.: 943-86 07 60

**ORRAZTEGI ZUMAI**

943-86 20 83

**KABI** Patxita Etxezarrete, 15  
943-11 74 27

**TABERNA**



**JUARISTI**  
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatu

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

**kalari**

Upela plaza, 8  
tel. 943-86 25 17



**LABARRA TABERNA**  
ZUMAIA  
est. 2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84

**malaur**



**CROISSANTERIA**

pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46



**MENDI - ONDO S.L.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69  
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)  
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industrigunea, C  
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91  
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com



**LIDEN**  
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zorautz  
678 875 652/ 943 905 983  
lur@olidenreformas.com  
www.olidenreformas.com



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranitz, 1 Tel. 943-14 31 12  
oskarbi@kirolak@euskalnet.net



**OSTOLAZA**  
OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Kortia Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com



# Familian ondo pasatzeko tartea



**IZAR ARREGI**

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Gaur egun daramagun bizimodu itoarekin, ia ez dugu tarterik izaten familian astialdiaz gozatzeko.

Astegunetan, gure lana dela, seme-alaben eskola eta eskolaz kanpoko ekintzak direla, etxeko lanak direla; eta asteburuetan, egiteke gelditu diren etxeko lanak direla (etxea garbitu, plantxa, erosketak...) edota bataren zein besteren planak lagunekin... Ezin elkarrekin gozatzeko denbora hartu! Eta zer esango dizuet, bada: noizean behin ezinbestekoa da dena albo batera laga eta elkarrekin egiteko zerbait antolatzea, familia indartzeko, komunikazioa hobetzeko eta elkarrekin gustura sentitzeko.

Harremanak zaindu egin behar dira, baita etxekoekin ere. Nola landareak, familiako erlazioak ere ur freskoarekin ureztatu behar dira, harremanak sendotzeko eta bizi mantentzeko. Gure denbora antolatu behar dugu, familian ondo pasatzeko tarte horiek egon daitezten.

Udako oporrak elkarrekin egitea ondo dago, baina urte osoan hori bakarrik baldin bada familiak ondo pasatzeko aurkitzen duen tartea, ez da egoera gomendagarriena, landareari kolpean ur gehiegi botatzea kaltegarria den bezalaxe. Askoz egokiagoa da sarriago antolatzea, tarte

laburragoak izan arren. Esate baterako, astero planen bat egitea eta familian egoteari garrantzia ematea. Aste batean izango da egun pasa edo arratsalde pasa bat, beste batean izango da zinemara elkarrekin joatea, edo izan daiteke elkarrekin jolastea, kirola egitea...

## Familia bilera

Horrekin guztiarekin lotuta, oso gomendagarria da familia bilerak egitea, eta bilera horietan erabakitzea zein izango den asteko ekintza dibertigarria. Familia bilera hauei garrantzia ematea proposatzen dizuet, formalismo aldetik ere seriotasunez hartzea. Erabaki noiz eta nola egingo duzuen (jatorduetan ez, mugikorrik ez...), eraman gaiak koaderno batean apuntatuta eta izendatu moderatzaile bat. Oso ona da moderatzaile ardura txandakatzea. Etxeko haurra txikiegia bada, lagun diezaiola heldu batek. Bilera laburrak izan behar dute, 20 minutu ingurukoak, bestela astunegiak bihur daitezke. Bilera hauek lagunduko dute familiako komunikazioa hobetzen eta balioak lantzen: kooperazioa, ardura, parte hartzea...

Bileran hitz egin daiteke asteen zehar izandako arazoez, egon diren liskarrez, bete diren eta beste ez diren ardurez... Baina kontuan izan oso garrantzitsua dela kontu positiboak ere aipatzea, eta

elkarri aitortzea aste horretan egindako zerbait ona: amak eskolako lanekin lagundu dit, semeak gela txukundu du... Horrekin batera, hurrengo asterako plana egingo dugu, zuzendu beharreko okerrak zuzentzeko konpromisoak hartuko ditugu, eta momentu dibertigarria zein izango den erabakiko dugu. Bakoitzak bere proposamena eramango du eta erabateko adostasunez (ez gehiengoz) erabakiko dugu familian zer egin.

Horrela, elkarren arteko harremana sendotu egingo da. Elkarrekin egon nahi dugula adierazten dugu, kapaz garena norberaren plana albo batera uzteko familiarekin egotearren. Balio positiboak lantzen ditugu (elkar entzutea, adostea, ardurak hartzea, errespetua...) eta norberaren eta familiaren autoestimua areagotzen dugu: familiak nirekin egon nahi du, familian egotea merezi dugu, talde bat gara, nire familia garrantzitsua da eta denok gara garrantzitsuak.

Arazoak izaten dira gazteekin, nahiago dutelako familiarekin planak egin baino lagunekin egitea. Transmititu behar zaie beraiek gabe hura ez dela familia plana, ezinbestekoa dela denok parte hartzea. Adierazi behar zaie ezinbestekoak direla familian. Hasieran kosta egiten zaie, baina normalean ohartzen dira eta gustura hartzen dituzte planak, haien proposamenak ere aintzat hartzen badira. ■■■

# "Itsasoaren mailaren igoera aintzat hartu behar da kostako herrien hirigintzan"

**ELISA SAINZ DE MURIETA** BC3 KLIMA ALDAKETAREN IKERKETA ZENTROKO ZIENTZIALARIA

Itsasoaren mailaren igoera da klima aldaketa eragiten ari den ondorio nabarmenetako bat. Zergatik ari da igotzen? Zenbat igo da eta zenbat gehiago igoko da? Nola eragingo digu euskal kostaldean bizi garenol? Galdera horiei erantzuteko ari da lanean Elisa Sainz de Murieta BC3 ikerketa zentroko geologoa. Testua eta argazkiak: **Gorka Zabaleta**.

**E**gunean bi aldiz bete eta husten den bainuontzi eder baten ertzean bizi gara. Itsasadarrak aukera ematen digu arrantzan egiteko, arraunean aritzeko, bainua hartzeko edo, besterik gabe, urari begira gure pentsamenduetan nabigatzeko. Itsasertzean bizi gara; zorionekoak gu. Baina zer gerta daiteke itsasoaren mailak gora segitzen badu? Bainuontziak gainezka egingo al du? Elisa Sainz de Murietak (Bilbo, 1977) ederki ezagutzen ditu Zumaia eta euskal kostaldea. Geologian doktorea, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko zuzendaria zen Zumaia eta Deba arteko kosta lerroa biotopo babestu izendatu zutenean. Gaur egun, BC3 (Basque Centre for Climatic Change) ikerketa zentroan ari da lanean, klima aldaketak euskal kostaldean izango duen eragina ikertzen. Beregana joa digu erantzun bila.

**Aurten kamera berezi batzuk jarri ditu Azti Tecnaliak Itzurunen eta Santiagon, klima aldaketaren ondorioak neurtzeko. Zergatik hondartzetan?**

Klima sistema bat da, makina baten modukoa. Aldaketaren bat egiten baduzu, eragina du sistema osoan. Negutegi efektua prozesu natural bat da berez, ahalbidetu duena Lurrean bizitza sortu eta garatzea. Atmosferan dauden gas batzuek gaitasuna dute eguzkiak igortzen duen energiaren parte bat gordetzeko, eta lortzen da

temperatura tarte egokia bizitzarentzat. Baina gizakiok gas horien kopurua neurrigabe handitu digu atmosferan eta horren lehen ondorioa izan da temperaturaren igoera. Eta horrek, itsas mailaren igoera ekarri du. Orain arte espantsio termikoa da gehien gertatu dena: gorputz bat berotzen denean bere bolumena handitu egiten da, eta hori gertatu da itsasoarekin. Orain arteko igoera ez da izan izotza urtu delako. Baina orain bai, ikusten ari gara Groenlandiak eta Antartikak uste baino ekarpen handiagoa egin dezaketela aurrerantzean.

**Beraz, negutegi efektuko gasen isurketak ondorio zuzena izan dezake Itzurungo hondartzan.**

Hori da. Euskal kostaldea malkartsua da eta hondartza gehienek ez dute atzera egiteko tarterik. Beraz, itsasoaren maila igotzen bada, esan nahi du hondartzaren eremua murriztu egingo dela. Ez da hori bakarrik. Itsasoaren maila igotzen bada, denboraleek eta olatu bortitzek kalteak eragiteko gaitasun handiagoa izango dute. Aztiren kamerekin hondartzaren bilakaeraren segimendu zehatza egin nahi da.

**Itsasoaren maila dagoeneko igo egin dela diozue ikertzaileek. Zenbat igo da?**

Kalkulatu da industrializazioa hasi zenetik [1880a hartzen dute abiapuntutzat] 20 bat zentimetro egin duela gora; gutxi gorabehera, 2 milimetro urteko XX. mendean zehar. Baina azken





Sainz de Murieta Ingurumen Saileko zuzendaria zen Zumaia eta Deba arteko kosta lerroa biotopo babestu izendatu zutenean.

hamarkadetan satellite bidez egiten ari diren neurketetan ikusi denez 1993tik 3 mm hazi da urteko, eta 2010etik aurrera erritmoa areagotu egin da. Gaur egun 3,3 mm ari da igotzen urteko, eta bizkortzen ari da.

**Eta zer aurreikuspen egin dituzue mende honetarako?**

Guk ez dugu esaten hau gertatuko da edo bestea gertatuko da; baldintza batzuk aztertzen ditugu eta horren ondorioak kalkulatzen ditugu. IPCC aditu taldeak [klima aldaketa ikertzen ari den nazioarteko erakunde nagusia] sei urtean behin txostenak egiten ditu, munduko zientzialariek egindako lanak oinarri. Etorkizuneko lau agertoki edo balizko egoera ezberdinekin egiten dugu lan. Izen arraroa dute, RCP (Representative concentration pathways, kontzentrazio bide adierazkorrek) gehi zenbaki bat (zenbakiak adierazten du Lurra zenbat berotuko den, erradiazio indarra). Baikorrena da RCP2.6, Parisko akordioa betetzea. 4.5 eta 6.0 tartekoak dira, 8.5 da gaur egungo bidetik segitzen badugu, ezer aldatu gabe.

**Eta zer diote zuen kalkuluek agertoki baikorrenean eta zer ezkorrenean?**

Euskal kostaldean, hartzen den agertokiaren arabera, 40 eta 80 zentimetro arteko igoera gerta daiteke mende amaierarako. Horiek dira agertoki estandarrek. Agertoki bakoitzak badu ziurgabetasun tarte bat. Imajinatu agertoki

bakoitzak abaniko itxura duela. Hor badaude emaitza baikorrakoak eta ezkorragoak. Aipatzen diren emaitzak dira tartekoak. Baina, erne, orain arte egin diren aurreikuspenetan, itsasoaren mailari dagokionez, datu baikorrenak erabili izan dira, baina ikusten ari gara emaitzak okerragoak direla azken 20 urteotan.

**Zergatik?**

Orain arteko kalkuluetan ez da aintzat hartu kontinenteetako izotzaren urtze prozesua azkarragoa izan zitekeenik, baina hala ari da gertatzen. RCP 8.5 agertokia baino okerragoa gerta daiteke, oraindik ere ez dugulako ondo ulertzen Groenlandiako eta Antartikako urtze prozesua, eta baliteke guk uste baino larriagoa izatea. Artikulu batzuetan, 1,5-2 metroko igoerak aipatzen hasi dira, egoera okerreanean.

**Mende amaierara iritsi aurretik igoera nabarmenak ikusiko al ditugu?**

Euskal kostalderako egin ditugun kalkuluetan Zarauzko datuak dauzkagu Zumaiatik gertuen. Mende hasieratik neurtzen hasita, 2030erako 12 zentimetro inguruko igoera; 2050erako, 23-26 zentimetro artekoa; hortik aurrera, aldeak nabarmenak dira: etxeko lanak egiten baditugu, 45 zentimetroko igoera da batezbesteko emaitza mende amaierarako; ez baditugu egiten, 72 zentimetrokoa.

**Eta zein dira etxeko lanak?**



Olatuak paolaldeko dikea gainditzen, neguko denborale batean.

Badago mundu mailan hartutako konpromiso bat, Parisko Akordioa deritzona. Akordio hartan adostu zen munduko batezbesteko tenperaturaren igoera bi gradutara mugatu behar dela [industrializazioaren hasieratik zenbatuta; dagoeneko bat igo da], eta ahalegin guztiak egin behar direla igoera hori 1,5 gradutara mugatzeko, gradu erdiko aldeak ondorio biderkatzailea daukalako kalteetan. Hori lortzeko etxeko lanak zein diren zehaztu du IPCCk, eta askori ez zaie batere gustatu, aldaketa oso sakonak egin behar direlako eta oso denbora tarte laburrean, mende erdirako. Gaur egun herrialdeek hartu dituzten konpromisoekin ez da nahikoa, 3,5 graduko igoera batera goaz. Igoera 1,5 gradutara mugatzeko, mundu mailan lortu behar da karbonoarekiko neutrala den sistema mende erdirako. Karbonoaren balantzeak zero izan behar du. Isurtzen duguna hustulekuek (oihanak, itsasoa...) gordetzeko gai izan behar dute. Gaur egun, oso urrutiti gaude.

#### **Eta guk zer egin dezakegu?**

Gogoratu tenperatura igotzen ari dela atmosferara isurtzen ari garelako negutegi efektua areagotzen duten gasak (CO<sub>2</sub>, metanoa...). Isurketa horiek gertatzen dira energia sortzeko garaian, garraioan, eraikinetan, nekazaritzan... Euskal Autonomia Erkidegoan, energiaren sorrerak eta garraioak isurtzen dute guztiaren % 60. Hor daukagu erronka handienak. 15 urte barru ikusi beharko genituzke gauzak asko aldatuta: auto elektrikoak,

eguzki panelak... Eraldaketa handi bat, isurketen iturria ixteko.

**Ados, guk gure etxeko lanak egin beharko ditugu, baina herrialde txikia gara eta horrek ez du eragin handirik izango handienek ez badute konplitzen. Zer gehiago egin dezakegu?**

Egokitzapenean asko egin dezakegu. Etorriko denari aurre egiteko neurriak geuk hartu behar ditugu, maila lokalean. Zumaiaren kasuan, mehatxu handi bat itsasotik etorriko zaio: denboraleak, itsasoaren mailaren igoera... Horrek eragina izango du hondartzetan, portuan eta herrian.

Temperaturak ere kudeatu egin

behar dira. Beroaldiak sarriago izango ditugu eta horri erantzuteko neurriak hartu beharko dira. Alerta goiztiarreko sistemak; itzalpeko guneak sortzea; iturriak; kalean lan egiten duen jendearen baliabideak; haurren, zaharren eta gaixoen gaineko zaintzak... Neurri batzuk oso garestiak eta inpaktu handikoak dira (dikeak, harresiak...), baina beste askok ez dute kostu handirik. Naturan oinarritutako neurriak ere har daitezke (padurak bultzatuz, duna sistemak...), eta ez dago itxaron beharrik kalte handiak gertatu arte. Airearen kalitatea hobetzeko neurriak ere har daitezke, energiaren kontsumoa murriztu, energia berriztagarriak bultzatu, mugikortasun planak landu...

**Baina badago puntu kritiko bat: uraren maila igotzen bada, gu bainuontziaren ertzean bizi gara, horrek gainezka egingo du. Nola babesten gara? Harresi bat eraiki behar dugu? Herria mugitu behar dugu atzerantz? Urari irabazitako eremuan dago herriaren parte handiena. Hor arazo handi bat daukagu.**

Bai, arazo batzuei aurre egiteko ingeniariaritz lan handiak beharko dira. Baina plangintza urbanoa oso garrantzitsua da. Plan orokorra egiteko garaian kontuan hartu behar dira klima aldaketaren ondorioak, eta itsasoaren mailaren igoera ere bai kostako herrien hirigintzan. Planak 20-30 urteko ikuspegia izan behar du. Ikusten bada itsasoaren mailaren igoerarekin itsasadarraren ondoan dauden eremuak urak har ditzakeela, gutxienez birpentsatu beharko da hor etxeak eraiki behar diren, eta hala bada zer neurri



Kirol portuko eskoilera gainditu zuen itsasgorak irailean.

**"GORPUTZ BAT BEROTZEN DENEAN BERE BOLUMENA HANDITU EGITEN DA, HORI GERTATU DA ITSASOAREKIN**

**"EUSKAL KOSTALDEAN 40 ETA 80 ZENTIMETRO ARTEKO IGOERA GERTA DAITEKE MENDE AMAIERARAKO**

**"ETORRIKO DENARI AURRE EGITEKO NEURRIAK GEUK HARTU BEHAR DITUGU, MAILA LOKALEAN**



Trenbide pasealekuaren inguruak, itsasgoran, urak hartuta.

har daitezkeen arriskua gutxitzeko edo ekiditeko. Herri mailan, plan urbanistikoa da tresna nagusia klima aldaketari aurre egiteko.

**Gure gizartearen joera da kostaldera joatea bizitzera, presio urbanistikoa kostako herrietan dago.**

Gure gizarteak badaki zer den klima aldaketa, baina gure bizimoduan izan dezakeen eragina ez daukagu garbi. Hori ondo landu behar da, ondo azaldu behar da, partaidetza prozesuak zabaldu behar dira eta gobernantza eredu berri bat behar da. Iritsi gara puntu batera neurri sakonak hartu behar direna, eta oraindik ez gaude prestatuta. Baina ezin dugu gehiago atzeratu. Aldaketa horiek guztiek ondorio ekonomikoak izango dituzte hainbat sektoretan. EAEn, adibidez, autogintzan. Gizartea ez badago kontzientziatuta, ez da erraza hori politikagintzatik bultzatzea. Eta politikatik orain arte ingurumen arazo bat bezala ikusi da, ikuspegi osorik gabe.

**Herritarrok arazoaren kontzientzia hartzeko bere eguneroko bizitzan izango duen eragina ikusi behar dugu.**

Hala da. Hondartzara joateko ordua ondo zaindu beharko da, askotan marea goraino igoko delako; urak nahikoa sarri egingo du gainezka itsasadarrean, garajejan ura sartuko da... Hori 30 urte barru gertatuko dela esatean, orduan piztuko da, agian, jendea. Baina ondorioei aurre egiteko orain hasi beharra dago planifikatzen. Agian oraindik ez da ingeniari-tza lan handirik egin behar, baina has gaitezke aurreikusten, eta bitartean neurri apalagoak hartu. Epe luzeko plangintzek klima aldaketaren aldagaia izan behar dute txertatuta. Pasa gara klima aldaketa ikertzetik klima aldaketa bizitzera. ■■■



ESKAERA AURKEZTEKO EPEA:

**AZAROAK 15**

# ALOKAIRU BEKA

AURKEZTU BEHARREKO  
DOKUMENTUAK ETA  
INFORMAZIO GEHIAGO:

[HTTP://ZUMAIA.EUS](http://zumaia.eus)

[BERDINTASUNA@ZUMAIA.EUS](mailto:BERDINTASUNA@ZUMAIA.EUS)

GAZTERIA SAILA: 943865025 LUZ. 404



ADINA

**18-35 URTE**

ERROLDA

**2 URTE ZUMAIAN  
GUTXIENEZ**

DIRU SARRERAK

**3.000-25.000**

BIZIKIDETZA UNITATEAN PERTSONA BAKARRA

**3.000-35.000**

BIZIKIDETZA UNITATEAN PERTSONA BAT BAINO GEHIAGO

ALOKAIRU MUGA

**700 EURO**

SALBUESPENA: 800 EURO (3 BIZIKIDETZA UNITATE, 100M2)



**Zumaiko Udala**

# ONGI ETORRI, *Udazkena*

URRIAREN 7 TIK 26 RA

Sariak

**50€ko  
8 erosketa bono**



**Gertu bizi  
Gertu erosi**



# Ura da, gu gara



**TESTUA ETA ARGAZKIAK:** IMANOL AZKUE  
@ImanolAzkue

*Txikitako oroitzapen bat datorkit burura: plastikozko marmita bat esku batean eta tuntuxa bestean, Ardantzako iturrirako bidean noa, ur bila, amak aginduta; udara da, eta ura kendu egiten dute batzuetan, lehortea denean; Ardantzako iturriko ura etxekoa baino hobea da, klororik ez izanagatik.*

Gizakiok ezinbestekoa dugu ura bizitzeko, eta normala da ura seguru dagoen lekuetan ezartzea bizilekua, iturriren baten ondoan. Zumaia iturri baten edo batzuen inguruan sortuko zen, eta etxeak eta kaleak egin ahala, iturri gehiago ere egingo zituzten; gainera, iturri horien ondoan, batzuetan bestelako eraikinak ere jartzen zituzten: albergak, arropa garbitzeko; deposituak, ura biltzeko; askak, animaliek edateko... Antzinako paperetan sarritan aipatzen dira iturriak: Zubiaurrekoa (San Telmoko), Arritokietakoa, Goiko kalekoa, Iturrikoa (Arroakalean)... Herrigunetik urrunxeago, han zegoen Ardantzakoa, eta garrantzitsua zen herrirako; hauxe 1786ko aipamen bat: “Dio también comisión cumplida a dichos señores capitulares y a Echave y Muguerza, para que arbitren el mejor modo que fuese posible,

para mejorar y poner bien la fuente publica de esta villa llamada de Ardanza por ser esencialísima para la salud y conveniencias de sus habitantes”<sup>1</sup>; Estazio aldean zegoen, Txepetxa elkarte dagoen inguru horretan, Pinuagako iturria, 1851n egina: “convenía ser reconocido el punto de Pinuaga de las riberas nuevas de la misma, se construya una fuentecita en dicho punto a fin de surtir a esta población, pues que era muy necesario para cubrir la falta que resultaba en la estación de verano”<sup>2</sup>. Baina ez zen nagusia, nonbait: “el Señor Presidente manifestó que la fuente de las riveras viejas encontró los días pasados descompuesta, y siendo dicha

fuelle la más principal de esta población se debía repararla sin demora alguna”<sup>3</sup>. Rafael Del Pilarrek iturri berezi bat aitatzen du Arrangoletan, garai batean belaontziek parean ainguratu eta handik hartzen zutelako ura: “Las aguas de este manantial, conocido como nosotros como Beltzenekoa, brotaban todo el año en una profunda y fresca umbría, próxima al Matadero Municipal y a la Escuela. El ‘progreso’, que no entiende romanticismos, puso barreras infranqueables a los veleros, y después se cargó la emblemática fuente de Arrangoleta”<sup>4</sup>.

Azkenik, leku-izen batzuen atzean iturrien arrastoak aurkituko ditugu: Iturtxo



Ardantzako iturria, 2011n.



Karakas inguruko etxolatxo edo ur hartunea. Beste bi ere badaude, gutxienez.



Artadiko errepidearen azpialdean dagoen depositu polita.

(Amaiako plaza inguruan),  
Iturrikoa etxea (Arroakalean)...

Herria handitzen ari zela eta, iturri berriak eraiki zituzten 1887an: "Con motivo de la

traída aguas a esta villa, acuerdan establecer fuentes. Una en la entrada del pueblo. Otra en la calle de San Telmo, otra en la plazuela de San Juan, otro frente a las escuelas

públicas y otro frente al convento de Carmelitas sin perjuicio de establecer otras más si la corporación cree necesario"; horietatik, ezagunena gaur egun Sanjuaniturrrikoa da, gure *lafuente*. Pixkanaka, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, ura etxetara eramaten ere hasi ziren, eta horretarako eskaerak egiten zizkioten herritarrek Udalari.

Baina nondik ekartzen zuten ura? Batez ere ekialdetik, Santiago ingurutik hasita Getariako lurretako edo mugako parajeetatik: Zumaiegi, Iruerreketa, Karakas, Sillero, Orrolloaga, Guruzelai, Asu... Iturriak bilatu eta aurkitu ondoren, harrizko deposituak eta bestelako eraikinak egiten zituzten, zein baino zein bereziagoak eta politagoak: batzuk harlanduzkoak eta handiak, gaur egun ere barruan ura daukatenak eta zutik dirautenak, landarediaz ezkutatuta sarritan; beste batzuk txikiagoak eta bobeda bereziekin estaliak; beste

## OIKIAN ERE BADIRA ITURRIAK ETA DEPOSITUAK, HORIETAKO ASKO BASERRIETAN

batzuk etxe edo etxola formakoak...

Iturriak oso ondo zaintzen zituzten: ez zuten uzten inguruan ganadurik ibiltzen, zuhaitzak landatzen zituzten ondoan itzala ziurtatzeko eta ura fresko egoteko, aldian behin garbitu egiten zituzten, etengabe begiratzen eta neurtzen zuten iturri horien emaria... adibidez, 1911n, guztira minutuko 288 litro ateratzen zituzten inguru haietatik, honela banatuta: Karakastik, 88,50 litro; Karakasen goialdetik, 3,50 litro; Orrolloagatik, 31,50 litro; eta Asuerrekatik eta Erdoitzatik, 165,50 litro<sup>6</sup>. Paraje horietatik, tutuen bidez ekartzen zuten ura herrigunera, ibaia zeharkatuta; horretarako aprobetxatu zuten Zubiaundia, eta trena ezarri zutenean (1900ean), trenbidearen ondotik, tuneletatik eta Trenzubitik ere ekarri zuten. Baina Zumaia ur gehiago behar eta mendebaldera begira ere jarri ziren: Salvatore ermita inguruko iturriak aztertu zituzten (Itziar bidean), Usarroaga (Arroaerrekan, Anduzpean), Errekatxo... Dena behar zen, eta, hala ere, nahikoa ez: 1933an, Eizagirre zahori edo ur bilatzaile tolosarrarekin harremanetan jarri ziren, herri inguruan iturri berriak bilatzeko. Azkenik, berriago da Oristoko iturria,



Zumaiegiren paldan depositu ederrak daude, Getariako lurretan, Zumaia begira.



Arteagaerrekako eraikin bitxia, pinudian ezkutatuta.

Oarguiko orduko gazteek egina, 1954an, Elorriaga aldean mendian zebiltzanek ura edateko. Herrigunetik aparte, Oikian ere badira iturriak eta deposituak, eta horietako asko

baserrietan; batzuetan, gainera, angulak ere gordetzen zituzten bizirik, denboraldia zenean. Iturriei dagokionez, Luis Martínez Kleiserrek Oikiako iturri berezi batez hitz egiten

**PUBLIZITATEA**

**Ostolaza**  
altzariak

Tel/Fax: **943-86 13 25**  
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 **ZUMAIA** (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

**SOLOZABAL**  
autoeskolak

Etkezaretza, 19 • 943-861416  
zumaia@solozabalautoeskolak.com

**talaraia**  
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

**Tabaia**  
Taberna

Enbena kalea  
20750 **ZUMAIA** (Gipuzkoa)  
tel. 943-86 19 73

**TTAKUN TABERNA**

Izustarri, 3  
tel. 943-86 52 89

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondoak (kodilloa)  
Saltxitzak, oilaskoak...  
Garagardoak aukeran

Ondartzo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA  
Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

**UZKUDUN**  
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 **Zumaia** (Gipuzkoa)  
Tel.: 943-11 63 97

**Xanti**  
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85  
www.xantialtzariak.com

**yoana**  
ileapaindegia

Amaia plaza,  
2 beheko  
943-14 32 78

**Zalla**  
taberna

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urrutia Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

**ZUMAIA AUTOESKOLA**  
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASADI, 12  
20750 ZUMAIA  
tel. 943 86 10 18 / Fax: 943 01 61 26

**Zumaia Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia

Aleia auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61

Jarri zure iragarkia  
**BALEIKEn**  
943-86 15 45

**BALEIKEn**  
25 urte  
zatoz gurekin ospatzera



digu, 1875eko udal informe batean aipatzen zelako: “Manaba de tarde en tarde alguna vez, sin regla fija: durante las mayores sequías brotaba, de su seno impenetrable, abundante caudal; cuando la tierra se bañaba en abundantes aguas, por el contrario, la fuente se secaba. Su curso duraba siempre pocas horas y solía anunciar revolución en el tiempo”<sup>7</sup>. Errenteria baserriaren azpialdean ere bada beste iturri bat, lehorterik handiengan ere ura ematen duena; Agirreko (Agerreko) iturria ere ezaguna da, eta inguru hartatik eraman zuten ura plazara auzolanean, 1901ean, eta depositua ere hantxe egon zen, iturriarekin, duela gutxi kendu zuten arte; Epeola baserritik hurre, errepedearen ondoan, badago beste depositu bat, apenas ikusten dena landarekiak estalita, kanpoaldetik harrizko eskailera bitxi batekin. Azkenik, askoz ere berriagoa da, 1975ekoa, Agirre baserriaren ondoko depositu handia; Pollos Oiquinarako ura eramateko egin zuten, Gaztelukerrekatik ura hartuta, eta deigarria da kanpoaldean daukan inskripzioa, euskara hutsean: “1975GÁREN URTEAN EGINA. NEÚRIA 2500000 TXOPIN<sup>8</sup> UR”.

Eraikin gehiago ere badauzkagu, adibidez, Andre Mariaren gainean eta Artadin,



Amezmendiko ponte ederra.



Oikiako deposituetako bat, errepedearen ondoan. Azkarregi pasatzen gara ondotik, hor dagoela ere konturatzekeo.

baina berriak dira, eta iraganeko xarmarik gabeak, gaur egun ere martxan daudenak.

2019an, iturria zabaldu eta Azpeitiko Ibai-Ederreko ura iristen zaigu, nahi adina, eta hala ez bada, berehala haserretzen gara. Ia ez dakigu non dauden iturriak herrian, ezta urik badaukaten ere, eta are gutxiago dakigu zein diren eta non dauden “ezertarako balio ez duten” eraikin zahar baina eder horiek. ■■■

<sup>1</sup>Zumaiako Udal Artxiboa, 69. kutxa, 162V. or. 1786-01-16an.

<sup>2</sup>ZUA, 71/11, 1851-06-24an.

<sup>3</sup>ZUA, 71/14, 1854-08-27an.

<sup>4</sup>DEL PILAR, Rafael: Arrangoleta. 1945-1951. *Memorias de un barrio, autoedizioa, Bilbo, 2016. 267. or.*

<sup>5</sup>ZUA, 2823, 197. or. 1887-06-09an.

<sup>6</sup>ZUA, 2835, 106. or. 1911-09-11n.

<sup>7</sup>MARTÍNEZ KLEISER, Luis: *La Villa Villagrana de Zumaia, Voluntad, Madrid, 1923. 186. or.*

<sup>8</sup>Wikipediatik: “Txopin (frantses chopine-tik), kutxot edo xiko bat da antzinako euskal bolumen unitate bat. 0,63 litroren baliokidea zen”.

# KULTURA

## Artea ardo artean

TESTUA ETA ARGAZKIA: JUAN LUIS ROMATET

Planetak lerrokatzen dituen antigualeko emakumea, horman gora joan nahi duten alanbrezko gizontxoak, ardo botila artean ezkutatzea helburu duten lanak, eta itzalez eta forma geometrikoz osatutako koadroak. Aran Santamaria eta Ander Hormazurik zumaiarrek beraien unibertso artistikoa eraman dute Zarauzko Lukas ardotegira (Ipar kalea, 3). Ardo botilen artean girotutako erakusketa hau azaroaren 4ra arte izango da zabalik.

Artea eta ardoa uztartzen ditu duela bi urtetik Zarauzko alde zaharrean kokatzen den espazio honek. “Manu Urbietta zarauztarrak kudeatzen ditu bertako erakusketak, eta haren bidez heldu zitzaidan erakusketa egiteko proposamena”, dio Hormazurik. “Gero, Aran gonbidatu genuen erakusketa honetan parte hartzera”.

Urtebeteko epean Hormazurik eta Santamariak muntatzen duten hirugarren erakusketa da Zarauzko hau. Zumaiako Kofradiako salmentan gelan erakutsi zituzten beraien lanak orain urtebete, Amaia Zinkunegi artistarekin batera, *Itsasotik herrira* ekimenaren barruan. “Handik hilabete batzuetara Kabiko erakusketa etorri zen”, du gogoan Hormazurik. Martxoan egin zuten erakusketa hori bi



Hormazuri eta Santamaria, Zarauzko Lukas ardotegiaren aurrean.

zumaiarrek. “Kabin bertako espazioetara egokitu behar izan genituen lanak. Hemen, Lukasen, harrizko homak ditugu, eta niretzat, behintzat, zailagoa da”.

Kabiko eta Lukaseko erakusketen artean, ekainaren amaieran, bakarkako erakusketa ere izan zuen Hormazurik Oxford aretoan, eta harako prestatutako lan batzuk eraman ditu Zarautzera. Itsasoak kostara ekarritako egurrarekin eta alanbrezko gizontxoekin egindako pieza berriekin osatu du Anderrek erakusketaren bere zatia.

Ardotegiko txoko batean dagoen pianoaren inguruko espazioa eskatu zuen Santamariak bere lanak erakusteko. “Pianolen orriekin egindako lanak egiten ari nintzen, eta haiekin jarraitu nahi nuen. Gero, ardotegi bat denez, botila huts batzuk eskatu nituen eta haiekin egin

ditut obra batzuk”. Arrainen eskamak eta amuak, planetak eta partiturak sartu ditu Santamariak beirazko edukiontzi horietan.

Kabiko erakusketan planetak ziren Santamariaren obra batzuetako protagonistak, eta bide horretatik jarraitu du Lukas ardotegiko proposamenean ere, bai pianolako orri gainean, baita botilen barruan ere. Partiturek ere beren presentzia dute erakusketa honetan, eta jolasak ere bai: “*Sekretua* izena jarri diot obra bati. Sarrionandiaren izen bereko testu bat dago ezkutatuta botila horretan”, dio Santamariak.

Santamariak eta Hormazurik Zarauzko Arrosaregi parkean egingo den erakusketa kolektibo batean hartuko dute parte urrian. Amaia Zinkunegirekin elkartuko dira berriro ere. Bidaiak jarrai dezala. ■■■

## AGENDA

## DEIALDIAK

## URRIA-ABENDUA

Jabetze Eskolako ikastaroak.  
*berdintasuna@zumaia.eus*  
*Autodesfentsa feminista (3 larunbat goiz, Torreberrin)*  
*Maitasun erromantikoa (5 astezken, Hogarrean).*

## AZAROAK 22-24

Xixili eguna ospatzeko musika egitaraua.

## AZAROAK 26-ABENDUAK 3

Euskararen Astea.

## AZAROAK 27-ABENDUAK 1

XVIII. Klarinete Maratoia.

## ERAKUSKETAK

## IRAILAK 26-URRIAK 20

Fernando Mardones. *Formak (Shapes)*.

## URRIAK 31-AZAROAK 17

Distira argazki elkarte. Erakusketa kolektiboa

## AZAROAK 21-ABENDUAK 8

*Kontatu-Osatu*, Zumaia Mugimendu Feminista.

## URRIA

## 9 ASTEAZKENA

**Ipuin kontaketa:** *Hitzak bildu eta jolastu*, Kantu Kantoi (4-7urte).  
*Haur liburutegian, 17:30ean.*



## 10 OSTEGUNA

**Zine forum:** *Pájaros de verano*. Zuz.:  
 Ciro Guerra, Cristina Gallego.  
*Aita Marin, 22:00etan.*

## 24 OSTEGUNA

**Zine forum:** *Burning*. Zuz.: Lee  
 Chang-Dong.  
*Aita Marin, 22:00etan.*

## 25 OSTIRALA

**Antzerkia:** *Quitamiedos*, Kulunka  
 Teatro (Gaztelaniaz).  
*Aita Marin, 22:00etan.*

## 27 IGANDEA

**Lehiaketa:** Elkarteen arteko LXVI  
 jaurtiketa-arrantza.  
*Urolaren itsasadarrean, 8:30atik-  
 13:00tara.*

**Dantza saioa:** Astinduren hileroko  
 saioa: *Mugimendu tailerra*.  
*Torreberrin, 17:30ean.*

## 29 ASTEARTEA

**Hitzaldia:** *Osasun karpeta*. Zumaiaiko  
 Osasun Zentroko langileak (ele  
 bietan).  
*Oxford aretoan, 18:30ean.*

## AZAROA

## 5 ASTEARTEA

**Hitzaldia:** 0-6 urteko haurren  
 gurasoentzat: *BAI esan, EZ esan...*  
*Mugak? Afektuak? Heziketa!* Alvaro  
 Beñaran (2.saioa).  
*Oxford aretoan, 18:00etan.*

## 7 OSTEGUNA

**Zine forum:** *El despertar de las  
 hormigas*. Zuz.: Antonella Sudasassi  
 Furniss.  
*Aita Marin, 22:00etan.*

## 8 OSTIRALA

**Ipuin kontaketa:** *Liburutegi  
 automatikoa*, Apika (5-8 urte).  
*Haur liburutegian, 17:30ean.*

## 10 IGANDEA

**Antzerkia haurrentzat:** *Mari eta  
 gailera fabrika*, Eidabe.  
*Aita Marin, 12:00etan.*

## 14 OSTEGUNA

**Zine forum:** *Blade Runner*.  
*Aita Marin, 22:00etan.*

## 15 OSTIRALA

**Antzerkia:** *Babesleku arrotzak eta  
 animalia basatien hotsak*, Rubik.  
*Aita Marin, 22:00etan.*

# Gatazkaren plano intimotik



## DEKLARATZEKORIK EZ

**Egilea:** Beñat Sarasola  
**Argitaratzailea:** SUSA  
**Argitaratze urtea:** 2019  
**Orrialdeak:** 302  
**Generoa:** Narratiba



**TESTUA:** ASIER ARAKISTAIN

Beñat Sarasola aski ezaguna da literatur munduan, poesian trebatua, kritikaria zein "Sautrela" saioaren gidaria izan da eta. Gaur aurkezten dizuegun *Deklaratzeikorik ez* liburua, aldiz, lehen eleberria du.

Nobela honetan 90eko hamarkadan kale borroka besarkatu zuen belaunaldi baten ajea eta ondorena kontatzen dizkigu Sarasolak, harreman afektibo korapilatsuen bitartez trama bera harilkatuz.

Puskatu ezin duen iraganaren zamarekin bizi da Beñat Sarasolaren lehenengo nobelako protagonista. Ez baita erraza iragana ahaztu nahi baina utzi ezin duenaren bizimodua. Militante politikoa inplikatu izana gaztetan, inplikazio horren kontrakarrean bizi nahi du orain, garai

gatazkatsu harekiko destaina azalduz.

Oraingoan, baina, ez naiz liburua aztertzen hasiko, idazlea bera baizik.

Zurian beltza jartzea ez da erraza izaten, denoi kostatzen zaigu zer esan, nola hasi edo zertarako bezalako galderei erantzuna aurkitzea. Hori bai, behin beltzean dagoena gorritz markatzea errazagoa izaten da, eta horretan, beltzari gorria ezartzen, Beñat Sarasola maisua dugu.

Bere kritikari lanean, sarri nahasten zituen, edo hala ulertarazi nahi zigun, liburuaren kritika zein

**90EKO HAMARKADAN  
 KALE BORROKA  
 BESARKATU ZUEN  
 BELAUNALDI BATEN  
 AJEA KONTATZEN DIGU**

idazlearekiko zuen iritzia, eta idazle gutxi izango dira Sarasolaren galbahetik onik atera direnak. Euskal letretan Saizarbitoria eta Atxagaz gain ez omen dago inor eta.

Bere lehen eleberria aurkeztu behar zuela irakurri nuenean, ausardiak ekintza bat burutu behar zuela iruditzen zitzaidan, ez baita erraza denak larrutu ostean norberak lan bat aurkeztea, are gutxiago begi guztiak zure gainean egongo direla jakinda.

Hala ere, Sarasola ez da kikiltzen den horietakoa; are gehiago: liburu aurkezpenean Harkaitz Cano lagun zuela, inongo konplexurik gabe katezismoa ematen zigun apaizak baino lezio gehiago eman zituen entzun nahi zuen ororentzat.

Zalantzarik ez dut urrutira iritsiko direla bata zein bestea, beraien (h)egoek mugarik ez baitute. ■

# Porru patatak tabaskoarekin



NEREA EIZAGIRRE TELLERIA

**B**adira hilabete batzuk, Far Westeko Euskal Herrian bizi naizena. EiTBe igande arratsaldeetan aspertzeraino irudikatutako artzain eta basamortu artean. Bai eta ez. Izan ere, Zumaia tik begira, bestela irudikatzen nuen urruneko euskal diaspora; museo exotikoren batean gordetako fetitxe folkloriko gisa. Aurreiritziak, ostera, lehendabiziko astean jata brastakoan arrakalatu zitzaizkidan, Renoko gizarte segurantzako bulegoan esperoan nengoelarik, idazkari batek nire abizena irakurri eta “Itxaron, nagusiari deituko diot!” esan ondotik. Etorri zen, bada, bulego hartako nagusia, eta nafarrera ederrean esan ez zidan, bada, “Nire abizena ere Eizagirre da”. Duela borregeita piko urte Renon jaiotako gurasoen hizkuntzan aise moldatzen jarraitzen zuen. Diasporan jaiotako euskaldunek sustraiak mantentzen zituztena lehendik ere banekien. Baina goiz hartan, amerikar burokrazian katramilatuta, ikasi nuen behinola euskaldun etorkin izandakoen seme-alabek botere lekuetan egiten dutela lan gaur egun.

Gero, joan den ekainean, Diana, nire pisukide kenyarra eta biok kale gorrian gelditu ginen, etxe-jabeak alokairuaren prezioa ilargiraino igo nahi zigula eta. Itzurungo hondartzan etzanda nengoelarik, uztailleko goiz batean, Florence Larranetaren mezu bat jaso nuen, Renoko euskal komunitateko *amtxiaren* mezua, esanaz bazekiela etxearen premian nengoela eta gela bat zuela niretzat. Abuztu erdirako Renon bueltan, Florencekin gelditu ginen Kenyiako laguna eta biok. Eta gu ia batere ezagutu gabe, Florencek bere etxeko giltza bana eman zigun, Zumaia ko alaba gaixo honi eta ene Nairobiko lagunari.

Irailaz geroztik, etxe bat daukagu, familia koxkor bat, urruneko basamortu honetan; eta alderrai ibili denak badaki zer esan nahi duen horrek. Florencek pazientziaz aditzen

**BERE ETXEO GILTZA  
BANA EMAN ZIGUN,  
ZUMAIKO ALABA  
GAIXO HONI ETA ENE  
NAIROBIKO LAGUNARI**

du nire ingeles pattalean egindako solasa, eta, tarteka, malko bat isurtzen zaio. Eskolan haurra zelarik, ingelesez baldar egitean jasandako isekak datorzkiogogora. Porru patatak prestatzen ditudanean, berriz, Orbaitzetan jaiotako amaren sukaldeko usainak berpizten zaizkio; halaber, tabaskoa botatzen dio gainetik, bizitza oso bat daramalako amerikarra (ere), izaten.

Kanpoan dagoenak herriarekin egin ohi du amets; gau eta egun. Eta amesten-amesten, otutzen zait ea gurean bizi diren senegaldarrek kuskusa prestatuko ote duten Olarru Egune ko hondarrekin. Tripa hutsik dagoenak egiten baitu hanka bere herritik, behinola euskaldunek Far Westerantz egin zuten bezalaxe. Eta, batik bat, okurritzen zait, egun batean, Nikaraguako alabaren bat etorriko dela Zumaia ra bizitzera, eta Udaletxean, bere herrikide bat topatuko duela bulegoan lanean. Eta Leyla eta Amaia pisukideak, edo auskalo zein gazte kale gorrian gelditzean, Zumaia ko etxeren bateko atea kabalik topatuko dituztela desiratzen dut. ■

# Arkadiara bidaiara



JUAN LUIS ROMATET

**V**iejovenes izeneko ikuskizuneko une batean, Ernesto Sevilla komediantea ikusleei zuzendu zitzaion. “40 urtetik gora ditugu eta diote oraindik gazteak garela. Bai, horixe! Kaka zaharra! Guri urdaiazpikoaren alde gogorra tokatzen zaigu orain”. Barrez lehertzen hasi ginen denok, 40 urteak aspaldi atzean utzi genituenak barne, ia ohartu gabe hitz horien atzean ezkututzen zen egia sakonaz.

Denbora aurrera doa, hemen, agian, noizbait ikusiko dugun AHT tren baten abiada itzelean. Gabonak, jaiotzak eta erregeak berriro gainean ditugu, eta, nire kasuan, laua ordezkaturiko duen bostaren muturra hor dago zelatan, oraindik urte gutxi batzuk falta bazaizkit ere. Eta nahi gabe bada ere, Nostalgia kanala sintonizatzen du buruak, aurrera begira taxuzko ezer egongo ez balitz bezala. Hor dago Txixarron ikusi zenuen kontzertu hura, hor dago opari moduan jaso zenuen lehen single hura (OMDren *Enola gay*), hor dago lagunekin Donostiako jatetxe sasimexikar hartan muntatu genuena, hor daude erabat borratuta dituzun urte horiek, hor dago matematikako azterketa egin beharrean Clint Eastwooden *Sin Perdon* pelikula ikustera joan zineneko arratsalde hura, eta, denboran atzera eginda, hor daude Etxe-Ona jatetxeko arratsalde haiek: txokolata txurroekin, uretan desegiten zen zuri koloreko boladoa, Eibarko beraneanteak, boleroak eta rancherak. Nahiz eta adin bat izan (bost alu hori begira dut berriro), azken horiek bizi ez nituela esango nuke; entzundako istorioekin Coppolaren funtzioa betetzen duen neuronak osatutako pelikularen bat izango da, ziur aski.

Etxe-Ona aspaldi bota zuten lursail horretan etxebizitzak egiteko. Baina haren espiritua zutik mantentzen da, non eta ETB-1en. Zer da, bestela, larunbat gaueroko *Oholtzan* saioa Etxe-Ona katodikoa ez bada. Ez dira txokolataak eta txurroak egongo, baina bai boleroak, rancherak eta bilbainadak, Los Panchos, txistulari bandak edo jotak. Ruper, Atxaga, Sarrionaindia eta Muguruzatarrak existitzen ez diren euskal Arkadia pozgarri batera eramaten gaituen denbora makina da *Oholtzan*. Modernitatea ez da existitu eta ez da existituko. Anari, Lisabö edo Mursego? Bai zera! Pantxoa eta Peio entzuten dute Iparraldean, Urko Gipuzkoan, Gontzal Mendibil Bizkaian eta Gorka Knörr Araban; Nafarroan jotekin jarraitzen dute, Maria Ostiz entzuten ez dutenean. Tamalez, ez dago uretan desegiten den zuri koloreko boladorik bidaiara goxatzeko. *Si tu me dices ven, lo dejo todo* diote Los Panchosek; ETB-1ek dei egiten dizunean dena uzten duzu... beste nonbaitera alde egiteko. Zorionez, Arkadia pozgarri horretatik kanpo eskaintza zabala dago. Oraingoz... ■■■

**TAMALEZ, EZ DAGO URETAN DESEGITEN DEN ZURI KOLOREKO BOLADORIK BIDAIA GOXATZEKO**



**ARDANTZABIDE**

ATSEDENA

Txomin Agirre, 4 · 20750 Zumala · 943-86 25 32  
ardantzabide@gmail.com · www.ardantzabide.com



**pikolin**

koltxoi bat erosteagatik,  
ohe-estalki nordiko  
bat opari



DESKANTSUAREN  
HILABETEA

**DECO**  
collection

**pikolin**



CROMO

135x190zm

**479€**

**Casa**  
**BASUSTA**  
LORATEGIA

*Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak*

*Lore-zentruak, Koroak*

*Landare naturalak eta artifizialak*

*Zermika-lanak eta zumezko saskiak*

***Etxez etxeko zerbitzua!***

Santiago auzoa, 18

Tel. 943 862 611



# IKASTOLEN ELKARTEKO KIVA FORMATZAILEAK ETA ZUMAIENAKO LAN TALDEA ELKARLANEAN

